

## Herririk herri

Ingelesa, frantsesa eta alemana praktikatzeko gunea eskainiko dute lurretako herri bibliotekan > 13



ESKOLARA  
2013 BUELTA



“Gaur egun nire bizimodu osoa triatloi mundura bideratuta dago” > 15

- > Gurutze Frades triatleta iurretarra distantzia ertaineko eta luzeko Espainiako txapelduna da.
- > Extreme Man zirkuituan orain arte jokatu diren hiru probak irabazi ditu.

## Ardi Jaia Durangon eta Atxondon > 3

Bihar goizerako Durangon Gazta Azoka eta Transhumantzia antolatuko dituzte. Arratsaldean Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa jokatuko dute Atxondon.

## Larrialdietako langileak babestu dituzte SATSE eta CCOO sindikatuek > 2

SATSEk -erizainen sindikatua- eta CCOOk Landakoko larrialdietako beharginak babestu dituzte prentsa ohar bidez. Osakidetzako zuzendariak langileen kontra plazaratutako adierazpenak gogor kritikatzear gainera, “mehatxuak egiteko aukera” egin duela diote. CCOOk, zentroan giza baliabideak falta direla adierazi du.

## EREMU HANDIKO ERRESONANTZIA MAGNETIKOA



POLIKLINIKA DURANGO

Intxaurren Kalea, 19.  
DURANGO  
(Karmeldarren  
komentu zaharrean)  
Tel: 944 668 668



Durangoko Poliklinika estreinatu berri dugu, DURANGOKO DIAGNOSTIKO ZENTRO berria irekitzean. Bizkaiko erradiologo esanguratsuez osatutako taldeak dakarren esperientzia zabala da zentro honen berme nagusia.

MUTUA NAGUSIEKIN ARI GARA LANEAN!

Durangaldeak badu jada, aurrenekoz, Erresonantzia Magnetikoaren Zerbitzua; teknologiarik aurreratuenarekin, diseinu konpaktuko imanarekin, eta tunel ultra labur batekin (145 cm), beste erresonantzia batzuetan sor daitekeen klaustrofobia sentazioa saihesteko.



cddurango@gruposcanner.biz

### Durango > 2

Faustegoienako etxebizitzen zozketa egin dute bigarrenaz

### Abadiño > 6

Greban daude Tratamientos Termicos lurreta enpresan

### Iurreta > 4

Etxea alokatzeko diru laguntza eskatu dezakete gazteek

### Zaldibar > 4

Haur-eskola berria inauguratuta ekin diote ikasturte berriari

# Herririk herri

> DURANGO

## Disfrazen desfilea, jaietako nobedade

Urriaren 11n hasiko dira jaiak, Dendak Bai elkarteak jaurtiko duen txupinazoagaz

> **MARKEL ONAINDIA**

Eduardo eta Eloi Landia anaien *San Faustuek olgetan!* kartelak iragarriko ditu San Fausto jaiak. Lehenengoz parte hartu dute lehiaketan. “Ume batek jaietako edukiko lukeen ikuspegi” azaldu gura izan dute. Playmobileko piezekin irudikatu dituzte Disfraz Eguna, Patxikotxu... Hilabete falta da San Fausto jaiak hasteko, eta prest dago egitaraua. Natxo Martinez zinegotziak udalaren izenean aurkeztu dio egitaraua prentsari,

jaiak antolatzen lagundu duten elkarteetako kideekin batera. Nobedade lez, Disfraz Egunean desfilea egingo dute koadrilaka edo taldeka. Urriaren 20an izango da, 18:30ean, Madalenatik Andra Marira. Animatzen direnek Pinondo Etxean eman beharko dute izena.

**Txupinazoa, merkatariek**

Urriaren 11n hasiko dira jaiak Dendak Bai elkarteak jaurtiko duen txupinazoagaz. Guillermo Oarbeaskoa presidentek



Eduardo eta Eloi Landia kartel irabazleekin, udaletxe aurrean.

eskerrak eman ditu: “30 urte daramatzagu lanean Durangoren alde, eta egindako lana aitortu digute”. Gainera, urriaren 12ko Umeen Egunean txupinazo txikia botako du pilota eskolak. Aurten ere ez dira faltako arto-

Landia anaien ‘San Faustuek olgetan!’ kartelak iragarriko ditu jaiak

pilen banaketa, *Zezenak dira*, gastronomia lehiaketa... Musika arloan, urriaren 20ko Deaffest jaialdi erraldoia nabarmendu dute; Berri Txarrak taldea izango da kartelburu. Sarrerak salgai daude 13 euroan.

## 112ko ambulanzietan, lan arloko polemika

Kudeatzaile berriak, Ambuiberica enpresak, hiru behargin kaleratu ditu; bat, Durangon

> **M. O.**

Uztailera arte Gurutze Gorria eta DYA ongintzako erakundeek kudeatzen zituzten Bizkaiko 112 larrialdietako ambulanzietan. Baina, iaz esleipen berria egin zuen Eusko Jaurlaritzak PSE-EE agintean zela, eta Valladolideko (Espainia) Ambuiberica enpresari adjudikatu zion zeregina hori. Gurutze Gorriak eta DYAk helegitea aurkeztu zuten erabaki horren aurka, emaitza positiborik lortu barik. Ondorioz, uztailaren 15ean Ambuiberica hasi zen ambulanzietan zerbitzu hori gestionatzen. Ordura arteko langileak hartu zituen enpresak, baina azken egunetan hiru behargin kaleratu ditu. Jose Luis Rio bilbotarrak Durangon egiten zuen lan. Zortzi urte zeramatzen DYAn.

Zapatuan kaleratu zuten Rio, eta horretarako erabilitako formak salatu ditu. Lanpostura joan,

eta telefonoz esan zioten kaleratua izan zela. Bulegora joan zen, agindua paperean jasotzeko eskatzera, eta udaltzainei abisu eman zietela kritikatu du Riok, istiluak zeudelakoan. Gero enpresako ardura-dun batzuk agertu, eta eztabaida sortu zen. Arduradunek azaldu zioten lan faltagatik kaleratu zutela, baina Riok esan du bere ordezkari bat kontratatu dutela: “1.500 euro kobratzen nituen, eta orain hasi direnek 900”. Ambuibericaren helburua negozioa egitea baino ez dela ohartarazi du Riok, eta zerbitzua baldintza txarragoetan ematen duela.

EH Bilduk legebiltzarreara eroango du gaia. Ambuibericak ez ei ditu baldintzak bete: “Gure susmorik okerrenak bete dira, eta gure kezka areagotu egin da”. EAJk PSE-EEk hasitako bideari jarraitu izana kritikatu dute.



Kurutziaga kalean dauka bulegoa Ambuiberica enpresak.

## Faustegoienako etxebizitzaren zozketa egin dute bigarrenez

Lehenengoa balio barik geratu zen akats informatiko baten ondorioz

> **M. O.**

Faustegoienako babes ofizialeko etxebizitzaren zozketa berriro egin dute. Martxoaren 22an egin zuten lehenengoz, baina akats informatiko baten ondorioz balio barik geratu zen. Horregatik egin dute bigarrenez. Astelehenean izan zen 52 etheen zozketa San Agustin kulturunean.

Martxoko zozketan 58 etxe egon ziren. Bi taldetan banatu zituzten, batean 6 eta bestean 52. Azken horretan egon zen akatsa. Udalak kontratatutako enpresa

informatikoak ez zituen datuak ondo prozesatu, eta zortzi hautagai zozketatik kanpo geratu ziren.

Zozketa hura balio barik geratuta, hasieran etxea lortu zutenak haserretu egin ziren. Izan ere, handik hilabete bira informatu zituzten, eta kritikatu zuten udalak hasieratik jakin zuela akatsa egon zela. Ezin izan zuten erreklamatu, eta hori ez zela legala esan zuten.

Astelehenean egindako zozketan, kaltetu batzuek etxea jaso

dute, baina beste batzuek ez. Kaltetuetako batek adierazi du etsita dagoela etxe barik geratu ondoren. Gainera, itzarote zerrrendan azkenetakoa da.

Udalak zozketa berriaz informatu du. “Udala kontaktuan egon da hilabete horietan Gesmae Informática S.L. enpresaren arduragabekeriaren ondorioz kaltetuak izan direnekin, eta berme guztiak bete dituen zozketa berria egin du”. Hala ere, Faustegoienako proiektuan beste zozketa bat egiteke dago oraindino.

## Larrialdietako langileen alde, CCOO eta SATSE

Sindikatuak langileen eskaerak babestu dituzte

> **M. O.**

CCOO eta SATSE sindikatuak Landakoko larrialdietako beharginak babestu dituzte prentsa oharren bidez. Joan zen astean, Osakidetza zuzendari Jon Etxeberriak adierazi zuen langileak manipulazioa erabiltzen dabilzela, eta ikerketa zabaldu eta zigorrak ipintzeko mehatxua egin zuen. Sindikatuen ustez, Etxeberriak hartutako jarrera onartezina da. “Beharginen eskaerak entzun beharrean, mehatxuak egiteko aukera egin du”, esan dute SATSEkoek.

SATSEk larrialdietako langileen eskaera nagusiagaz bat egin du: txanda bakoitzeko erizain bat gehiago egotea nahi dute. “Hiru urte daramatzagu eskaera horregaz. Asistentzien igoera ikusita, ezinbestekoa iruditzen zaigu”.

CCOOK adierazi du Landakoko zentroan giza baliabideak falta direla, eta Etxeberriak esandakoaren kontra egin du. Sindikatu horretako kideen ustez, lan baldintzez gainera, beste eragin garrantzitsu bat ere badauka hutsune horrek: “Gaixoen osasun arriskua proportzionalki handitzen da”. Horregatik, lan baldin-

tzak indar handiagok exijitzeko eskubidea daukatela aldarrikatu du CCOOk.

Landakoko asistentzia taldea mediku bik eta erizain batek osatzen dute txanda bakoitzean. SATSEren ustez, kopuruak parekoak izan beharko liriateke. Medikuek beharrezana ikusten duenean, erizain bati deitu eta zentrorra joaten da. SATSEk, beharginek lez, funtzionatzeko modu hori kritikatu du, deia egin eta erizaina agertzeko igarotzen den denbora garrantzitsua dela-eta.

Osakidetza zuzendariak ikerketa zabaldu eta zigorrak ipintzeko mehatxua egin zuen

**> DURANGALDEA**

# Durango eta Atxondo III. Ardi Jaiaren bilgune izango dira zapatuan

Egitarau osoa egun bakarrean batu dute aurten

**> JONE GUENETXEA**

Bizkaiko ohiturazko bizimoduarekin lotutako gune eta paisaiak ezagutzera eman guran, Ardi Jaiaren hirugarren edizioa antolatuko dute zapatutarako Durangon eta Atxondon. Gonzal Sarrigoitia Urkiola Landa Garapenerako ordezkariak, Guillermo Oarbeaskoa Dendak Bai elkartearen presidentea, eta Oihana Azkorbebeitia Gerediagako kideak prentsurrekoan aurkeztu dute egitaraua. Azal-

du dutenez, goizeko egitaraua Durangon antolatuko dute, eta arratsaldean, berriz, Atxondo izango dute topaleku. Andra Mariko elizpean prestatuko duten Gazta Azokagaz ekingo diote egitarauari. Bertan izango dira, besteak beste, Idiazabal gaztagaz, Atxarte Gazta, Aitor Urien, Erreketa, Jaio eta Txirri. Merkatu plazan egoten diren ekoizle batzuk, Ardi Jaiagaz bat egingez, Andra Marira lekualdatuko dira. Eguerdiko 13:00etan,

Jose Ramon Agirianok Gazta dastaketa herrikoia zuzenduko du. Doako ekintza izango den arren, Dendak Bai elkartearen egoitzan erreserba egin beharra dago. Elkarteko kide den dendaren batean egindako erosketaren tiketa zein Durango Txartela aurkeztu behar dira. Gainera, leku berean Bizkaiko Txakolin Eguna ere ospatuko dute.

**Transhumantzia gogoratu**

Artzainek urtaroren arabea artaldea larrez aldatzeko transhumantzia egiten zuten. Artaldeak hartuta artzainek abelbide naturalak zeharkatzen zituzten. Durango abelbide horietako batek zeharkatzen zuen. Ohitura hori ezagutzera emateko, Krispin Arregi Garaiko artzainak Iurretatik abiatuta Durangoko hainbat kale zeharka-

tuko ditu 60 ardez osatutako artaldea bidelagun duela.

**Txapelketa, zapatuan**

Aurtengo Ardi Jaiko nobedadeetako bat, Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketa jokatuko egunaren aldaketa da. Aurreko urteetan domeka goizez antolatu izan duten arren, aurten zapatu arratsaldeko

Jose Urien abadiñarra Bizkai txakurragaz izango da Durangaldeko ordezkari bakarra

17:00etan batuko dira Axpeko Elizalde landetan, Atxondon. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko txapel-dun eta txapeldunordeak lehiatuko dira bertan. Jose Urien abadiñarra Bizkai txakurragaz izango da Durangaldeko ordezkari bakarra txapelketaren 47. aldian.

Lehiaren ostean, sarrerarekin batera bertaraten direnek, Arabako Errioxako ardoa eta Durangaldeko gazta eskuratzeko aukera izango dute.

Ardi Jaiko kupoiekin, bi lagunentzako afari bi zotz egingo dituzte.



Sarrigoitia, Oarbeaskoa eta Azkorbebeitia Ardi Jaiaren aurkezpenean.



Iazko Ardi Jaiko irudia. Gerediaga



Zabu Zibu egitasmoko sustatzaileak, Behargintzaren egoitzan.

## Badator bueltan Zabu Zibu, aisialdian euskaraz egiteko

Ume eta helduek euskaraz jolastea gura dute

**>M.O.**

Amankomunazgoak berriro ipiniko du martxan Zabu Zibu egitasmoa, uda aurretik lehenengo esperientzia izan eta gero. Euskararen erabilera indartzeko asmoz sortu zuten, eta aisialdian oinarritzen da. Ume eta gurasoek euskaraz jolastea gura dute, ohiturak aldatzea. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea adierazi du indar handia egin gura dutela arlo horretan: "Familiako transmisioa lerro estrategikoa da".

Urtxintxa Eskolaren laguntza dauka Amankomunazgoak, eta jolasa zergatik darabilten

azaldu du Maite Asensio kideak: "Hizkuntza ohituretan garrantzi handia dauka aisialdiak". Irailan eta urrian egingo dituzte jolas saioak zenbait herritan, asteburu honetan hasita. Hiru eta bost urte arteko umeen zuzendutako ekimena da.

**Familiakoak ere partaide**

Familiak ere berba egiteko ohituretan eragiten duela uste dute, erreferentzia direlako. Horregatik proposatzen dute ume eta helduek batera jolastea. Ekimean parte hartzeko ezinbestekoa da guraso edo familiakoak ere partaide izatea. Ordubeteko

## Sorospenagaz lotutako ikastaroa antolatu dute

**A.B./M.O.**

Amankomunazgoak lehen laguntzako eta ur sorospeneko ikastaroa antolatu du. Gurutze Gorriko kideek eskainiko dituzte eskolak, azaldu dutenez. 128 orduko iraupena edukiko du, eta zati bitan emango dute. Gehien jota hogeitaz lagunek parte hartu ahal izango dute ikastaro horretan, eta guztiek lanpostu baterako baliogarri diren titulazio ofizialak jasoko dituzte kursoaren amaieran. Amankomunazgoan dauden herrietan erroldatutakoek hartu dezakete parte; baita Berriz eta Garaikoek ere. Irailaren hogeira arte eman ahalko dute izena, Behargintzaren egoitzan. Bost euro ordaindu behar da, eta dagozkien beharrak betez gero, dirua bueltatuko zaie.

Urriaren 7an hasiko da ikastaroa, eta azaroaren 23ra arte iraungo du. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea adierazi du lan mundaia begira egindako eskaintza dela: "Behargintzan hasieratik hona egin dugun lez, eskualdeko herritarrei prestakuntza on bat eskaintzea da gure asmoa, horrela, lanpostu bat lortzeko aukera emateko".

saioretan, helduei ere erakusten dizkiete euskarazko jolasak. Normalean, orain artean, gaztelaz ikasi izan direla azaldu dute antolatzaileek. Aurreko esperientzian ikusi zuten, hainbat gurasok lotsa sentitzen dute hasieran, baina probatu ostean errepikatu egiten ei dute. Lotsak kentzeko gonbita egin diete helduei.

**Saioen berri**

Joan zen ikasturtean, apiril aldegaratu zuten Zabu Zibu. Gustura daude jasotako emaitzekin, eta errepikatzea erabaki dute. Aldundiaren eta Jaurlaritzaren diru-laguntza daukate, gainera. Durango, Mañaria, Atxondo, Berriz, Zaldibar eta Elorrioren egoitza dute orain ekimena. Horren inguruko informazioa webgune honetan eskuratu ahalko da: [www.durangaldea.euskaraz.eu](http://www.durangaldea.euskaraz.eu).

## ZUZKETA

ETXEBARRI JATETXEAN 2 LAGUNENTZAT DASTATZEKO MENUA (EDARIAK BARNE) ETA AKEBASO JATETXEAN BI LAGUNENTZAKO AFARIA.

Hurrengo txartela zure datuekin bete eta Gerediaga Elkarteak eta Dendak Bai antolatzen duten Gazta Azokara (Andra Mariko elizpean, goizez) zein Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketera (Axpen, arratsaldez) eraman.

**IZENA****E-MAIL****HERRIA**

15/1990 Lik eta 14/2002 Legelari enbortatiboen jarriztatzean dagoen zure datuak Gerediaga Elkartea eta Dendak Bai-erri-antolatzaileekin partekatzen direla onartzen duzula, eta beraien asmatan fitxategiak erabiltzea, zuzentzea, ezabatzea eta publikatzea erabiltzea onartzen duzula onartzen duzula, ez beste inolako daturik ematen ez duzula.

Ez dut buruenik ematen ez Gerediaga Elkarteari ezta Dendak Bai-erri-antolatzaileei ere porta elektronikoki bidaltzeko.



**> MALLABIA****Berdineskolako ikastaroen inguruko inkesta****> JONE GUENETXEA**

Berdineskola, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena, sentsibilizazioa, partaidetza eta inplikazioa lortzeko helburuarekin sortu da. Mila Mondragon alkatearen hitzetan, “duela gutxi hasi da ekimen hori Bizkaiko beste herri batzuetan eta Mallabian ere egokia dela ikusi dugu”.

Mallabitarrek zein ikastarotan parte hartzeko interesa duten jakin eta ordutegien berri izateko, inkesta zabaldu du udalak. Hiru ikastaro proposatu ditu: Emakumeek historian izan duten lekua ezagutzeko, *Emakumeen historia: kontatu ez digutena* (10 ordu) ikastaroa; hainbat esparrutako gatazka egoerak aztertu eta aurre egiteko *Gatazkak: bitartekotza eta eraldaketa* (emakumeentzako); *Gazteria eta emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa* emakumeen aurkako indarkeria egoerak atzematen eta saihesten, eta egoera horiei aurre egiten ikasteko gaztaroan.

**Zuzenketa**

Joan zen asteko alearen azalean Mallabiko albistean ez zegokion titularra idatzi genuen. Barkatu eragozpenak.

**> ATXONDO****Euskal dantzak ikasteko aukera dute gaztetxoek****> JOSEBA DERTEANO**

Andasto dantza taldeak bi-hiru urtetik gorako ume eta gaztetxoei zuzendutako euskal dantza saioak hasiko ditu gaur, 19:30ean, Apatako pilotalekuan. Kurtso berriko aurreneko saioa izango da, eta hemendik aurrera ostiraleroko dira ordu eta toki berean. Gaur egun, 25 bat gaztetxo dabilta dantza taldean, eta ostiraleko saioak eurei bideratuta daude. Gaur egun daudenez gainera, herri osoko gaztetxoei za-

B i-hiru urtetik gorakoei zuzenduta barikuro 19:30etik 20:30era batuko dira batuko pilotalekuan

balik dauden saioak direla dio Nagore Arana dantza taldeko ki-deak: “Ume eta gaztetxo guztiei zabalik gaude. Guk beso zabalik hartuko ditugu”. Neskek arku dantza eta zinta dantza ikasiko dituzte, esaterako. Mutilak banango, binango eta txotxongilo dantzan, besteak beste.

**> ZALDIBAR**

Obraren inguruko azalpenak eman zituzten zapatuan. Delfin Zubizarreta.

**Asteon hasi dira eskolako eraikin berriak erabiltzen****> I. E.**

Eskolako eraikin berri biak bete dituzten umeak, euren guraso eta irakasleak, eta herrikideak elkartu ziren zapatuan, Zaldibarko Haur-eskola eta bi urtekoentzako eraikin berrien ate irekien ekitaldian. Arantza Baigorri alkatea eta udal gobernuko hainbat ordezkari, eskolako proiektuaren diseinua jorratu zuten teknikariak, eta eraikinak atontzeko zein biomasa galdara

ipintzeko obra burutu duen enpresaren ordezkariak ere izan ziren ekitaldi horretan. Obraren inguruko azalpenak eman zituzten arduradunek ekitaldira bertaratutako herritarrei, eta gelaz gelako bisitan zaldibartarrek egindako galderak ere erantzun zituzten arduradunek.

Haur-eskolan joan zen asteko egunean hasi zuten ikasturtea, eta asteon ekin diote bi urtekoek kurtso berriari.

**Bost ikastaro emakumeen jabekuntzarako****> I. E.**

Emakumeen parte hartzea bultzatzeko helburuz antolatu dituzte emakumeentzako jabekuntza eskolaren saioak. Bost ikastaro eskaini dizkiete emakumeei, askotariko gaien ingurukoak. Urriatik abendura bitartean egingo dituzte saioak.

Feminismoari buruzko saio bi eskainiko dituzte, esaterako, Edurne Epelde eta Ana Revuel-tak. *Pentsamendu feminista: ez gara jaiotzen emakume, egin egiten gara* izenburuko saioa gidatuko dute urriaren 26an, eta *Eraldaketa feminismoa* izenburuko abenduaren 14an. Emakumeen arteko aliantzak sortzeko duen garrantzia aztertuko dute.

Hamasei orduko ikastaroa izango da, bestalde, urriaren 9tik azaroaren 27ra arte egingo dutena: *Ezetz esaten ikasi nahi duzu?* “Zerk eragozten dizu ezetz esatea?” bezalako galderak egin, eta gogoeta bideratuko du Isabel Santigok. Urriatik abendura egingo dituzte, era berean, txalaparta, eta 50 urtetik gorakoentzako informatika ikastaroa.

Irailaren 23ra arte, udaletxean eman daiteke izena.

**> MAÑARIA****Ikastaroetan izena emateko aukera****> M. O.**

Ikasturte berriagaz batera, hainbat ikastarotan apuntatzeko aukera eman du udalak. Irailaren 20ra bitartean, gimnasia ikastaroetan izena eman ahal izango dute mañariarrek. Mantentze-gimnasia deitzen den ikastaroa martitzen eta eguenetan garatuko da, 19:00etatik 20:00etara. Pilateskoa, ostera, astelehen eta eguaztenetan, ordutegi beragaz. Mantentze-gimnasia apuntatu gura duten herritarrek, 75 euro ordaindu beharko dute urteko kuota. Pilates ikastaroaren kasuan, ez dago zehaztuta; izena ematen duen jende kopuruaren arabera izango da prezioa.

Bestalde, aurten ere umeentzako ingeles ikastaroa eskainiko du udaleko kultura arloak. Astelehen eta eguaztenetan emango dituzte eskolak, 17:30etik 18:30era. Adina kontuan hartuta, talde bi sortzea da antolatzaileen asmoa.

Martxan dagoen ikastaro bat esku-pilotakoa da, martitzenean hasi zuten eta ikasturtea. Arratsaldeko 17:30etik aurrera ikasiko dute gazteek pilotan jokatzeko. Martitzen eta eguenetan elkartuko dira pilotalekuan.

**25 zaldizkoren arteko lehia ikusgai bihar, Olazarren****> I. E.**

Euskadiko Cattle eta Team Penning lehiaketaren finala jokatu dute, bihar, Zaldibarko Olazarko zelaian. Azken bost urteetan antolatu du Euskal Western Elkarteak final hori Zaldibarren, eta aurten, 25 zaldizko ariko dira zaldi gainetik ganadua zeinek hobeto gidatu lehian. Goiz eta arratsaldean izango dira saioak.

Euskadiko Cattle eta Team Penning lehiaketaren finalak jokatu dituzte bihar, Olazarko zelaian

Modalitate bitan ariko dira biharko finalean parte hartzaileak: zaldizko bakarrak jarduten du Cattle Penning izeneko modalitatean, eta 60 segundoan zazpi txahal hesian sartzean datza ariketa. Hiru zaldizko taldeetan jarduten dira, aldiz, Team Penning-ean: hiruko taldeetan, 90 segundoan 21 behi hesiratzea lortzea da ariketa horren helburua.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, musikak giroa du biharko eguna, eta jan-edana eskaintzeko txosna ere atonduko dute Olazar futbol zelaia zegoen lekuan. 10:00etatik 13:00etara izango da biharko hitzorduaren goizeko eskaintza, eta 17:00etatik 19:00etara arratsaldekoa.



Azken bost urteetan jokatu dute finala Zaldibarren.



**IURRETA UDALERRIKO ENPRESA-PROIEKTUEN V. LEHIAKETARAKO DEIALDIA**

**Helburua:** Iurretako herrigunean enpresa berriak sortzeko ekimenak sustatzea eta bidea erraztea norberaren enpresa edo denda sortuz, lanean hastea erabaki dutenei.

**Oinarriak:** Lehiaketaren oinarriak Iurretako udaletxean edo Udalaren web gunean eskura daitezke.


**Proiektuak aurkezteko:** 2013ko ekainaren 17tik urriaren 31ra bitartean, Udaleko bulegoetan (Bidebarrieta 5).

**Saria:** 6.000 €

Tfnoa: 94 620 12 00  
www.iurreta.net



Athletic-eko Kafe Ofiziala



Athletic

Bihotzean



Eskaneatu kode hau  
bideoa ikusteko



**> ELORRIO**

## Aste Berdea ospatuko dute asteleheneetik aurrera

Bizikletaren erabilera indartzeko plana aurkeztu zuen udalak eguenean



Ingurumenagaz lotutako ekintzak egingo dituzte Elorrian.

**> MARKEL ONAINDIA**

Aste Berdea hasiko da Elorrioren datorren astelehenean. Ingurumenaren zaintzeko ideia oinarri hartuta hainbat ekintza garatuko dituzte, batez ere, informatiboak: berbaldiak, mahai-inguruak, tailerrak... Horien artean, garrantzi berezia hartuko dute mugikortasunagaz lotutakoak. Hau da, zelako garraio sistema erabili ingurumenaren ahalik eta gutxien kaltetzeko. Udalak, bizikletaren erabilera indartzeko plan bat garatu du aurten, eta hori aurkeztuko du eguenean.

19:00etan izango da, Iturri kultur etxean. Otsailean hasi zen plana erredaktatzen.

Hilaren 21ean, bizikletagaz ibilaldia egingo dute 10:00etan plazan hasita

Bizikleta herrian mugitzeko alternatiba erreala izan dadin, gune seguruak zehaztu gura izan ditu udalak. Horrela, ku-

tsadura akustikoa eta CO2 gas emisioak murriztea da euren asmoa. Gainera, herriko espazioaren erabilera ere handiagoa izango dela uste dute.

Astelehenean, karbonoaren inguruan eraturako berbaldiak zabalduko du Aste Berdea. 19:00etan izango da, Iturrin. Hurrengo egunetan, hiri hondakin solidoen gaineko debatea edota saskigintza ikastaroa egingo dituzte, besteak beste. Zapatuan, hilaren 21ean, bizikletagaz ibilaldia egingo dute 10:00etan plazan hasita.

**> OTXANDIO**

## Basobisitan mugarriak bisitatuko dituzte etzi

Domekan, 08:00etan, irtengo dira udaletxe aurreko plazatik eta bost ordu inguru iraungo du irteerak

**> JOSEBA DERTEANO**

Iraileko hirugarren domekan ohi duten moduan, etzi, 08:00etan, Basobisitan irtengo dira otxandiarrak mugarriak bisitatzeko.

Gomilazera heltzen direnean parte hartzaileak talde bitan banatuko dituzte

Atabalariaren erritmoak lagunduta, mugarrien egoera aztertu ez ezik, ondoko zuhaitzetan markak egingo dituzte herriko mugak markatzeko. Gomilazera, talde bitan banatuko dituzte parte hartzaileak. Talde bat Ubide, Zeanuri eta Dima alderantz joango da; bigarren taldeak Legutio eta Aramaio inguruko mugak ikuskatuko ditu. Oletara heltzen direnean, udal idazkariak akta jasoko du, eta bertan udal ordezkariak ez ezik,

herritarrek ere sinatu ahal izango dute.

Ibilbidean zehar bakailao otartekoak eta ardoa banatuko dituzte. Talde biak Andaparaluzetan elkartuko dira, eta talde bakarrean batuta, herrigunera itzuliko dira berriro, 13:00 inguruan.

Historikoki tirabirak izan dituzte Aramaio eta Otxandio *Limitadua* izenagaz ezagutzen den lur zati baten jabetzaren inguruan (500 hektarea inguru dituzte lur zatia haren). 1754an sortu zen Otxandion *Limitadua*-ren mugak urtero-urtero ikuskatzeko ohitura eta gaur egun ere badirau.

Andaparaluzetan batuko dira talde biak eta elkarrekin egingo dute herrigunera arteko bidea

**> ABADIÑO**

## Aitte Kurutzeko jaiak, asteburuan, Zelaietan

Gaur, 20:00etan altxatuko dute Donien-atxa

**> I.E.**

Asteburuan ospatuko dituzte Zelaieta auzoko Aitte Kurutzeko jaiak. Gaur, 20:00etan, Donien-atxa ipini, eta hiru eguneko jai egitaraua abiatuko dute. Pijama Eguna izango dute gaurkoa Zelaietan: Lotxo taldearen erromeria izango dute 22:00etan, eta ohitura den patata dantzaren ostean, 03:00etan, kulero eta galtzontzilo lasterketa egingo dute.

Bihar, Mozorro Eguna ospatuko dute, eta "mendebaldea"

izango da moztzorako gaia. Meza eta dantzarien emanaldiagaz hasiko dute biharko egitaraua. Arratsaldean, moztzorren desfilea eta poteo animatua egingo dituzte. Ondoren, norberak etxetik eramandako jakiekin afaritarako elkartuko dira, Maleta Ziku ekimenean, eta Ansorregi erromeriagaz amaituko dute eguna.

Bestalde, azken urteetan berreskuraturiko txirikila eta txirinkola jolasak egingo dituzte domekan, 17:30ean hasita.

## Greban daude Tratamientos Termicos Iurreta enpresan

Abadiñoko zentroko 9 langileetatik 8k ia hiru hilabete daramate greban

**> JOSEBA DERTEANO**

Tratamientos Termicos Iurreta enpresak zentro bana du Iurretan eta Abadiñon. Abadiñoko zentroko bederatzi langileetatik zortzi greban daude ekainaren 18az geroztik.

Orain ez dute enpresa hitzarmenik. Enpresako hartueman laborala Bizkaiko metal arloko hitzarmenak gidatzen zuen. Esparru batzuetan, hitzarmen hori hobetzen zuen eskubideak zituzten (langileek enpresan

daramaten denboragatik...). Baina 2012ko lan erreformaren ondorioz bertan behera geratu zen metal arloko hitzarmena. Langileek enpresa hitzarmena adostu gura zuten, baina "zuzendaritzak ez du negoziatu gura", adierazi du ELAK enpresa horretara bideratu duen aholkulari Jon Iñaki Etxebarriak: "Lan erreforma muturrera eraman gura dute. Aldebakarreko erabakiak hartu gura dituzte, langileak aintzat hartu barik". Lan-

gileen eskakizun nagusia, "lan baldintzak aurretik zituzten egoera berdinean mantentzea da; ez dute zutena baino gehiago eskatzen".

Egun, enpresako bazkide bi lanean dabilta, eta ekoizpenak aurrera jarraitzen du. Lan arloko azterketa teknikoko ordezkariak egoera horrela dela ikusi ahal izan dute, eta enpresari zigorrik ezarriko dioten zain daude. Horrek, negoziatorako bidea ireki dezakeela uste dute.



**MATRIKULA  
IRAIL OSOAN**

**CEPA DURANGO HHI (Helduen Hezkuntza)**  
Doako Irakaskuntza ofiziala



**IRAKASKUNTZA ARAUTUA**

- Atzerritarrentzako gaztelania
- II. GRADUA (Lehen Hezkuntza)
- DBHko graduatua

**IRAKASKUNTZA EZ-ARAUTUA**

- Unibertsitateko sarbide-proba
- Goiko zikloetarako sarbide-proba
- Informatika (hasiera maila)
- Euskara / ingelesa (hasiera maila)

**MATRIKULA ZAITEZ**

**94 681 42 53**

[www.epadurango.hezkuntza.net](http://www.epadurango.hezkuntza.net)

**Matrikula egiteko ordutegia:**  
Asteleheneetik ostegunera: 09:00-12:00/15:30-20:00. Ostiraletan: 09:00-12:00.

Beste jarduera batzuk: kultur ekitaldiak, irteerak...

**> DURANGALDEA ASTEON****'Salerosketak be euskaraz' zozketako zenbaki saridunak**

Dendetan euskararen erabilera sustatzeko kanpaina da *Salerosketak be euskaraz*. Euskara darabilten artean tablet informatikoen zozketak egiten dituzte. Seigarren zozketako sariduna 213.466 zenbakia da, Metro kopistegian banatutakoa. Ordezkoa 225.865 da, Gutizi dendan emandakoa.

**Berrizko kiroldegian euskara bultzatzeko programa hasiko dute**

Berrizburu kiroldegian euskara bultzatzeko Kirola Euskaraz ekimena martxan ipiniko dute. Horrela, adibidez, ikastaroetan erdiak baino gehiagok euskara ulertzen badu, euskara izango da monitorea nagusiki erabiliko duen hizkuntza. Ikastaroetan izena emateko azken eguna irailaren 16a da.

**Nagusientzako hainbat ikastaro antolatu ditu Durangoko Udalak**

Zahartzaro aktibo eta osasungarri bat sustatzeko helburuz, hainbat ikastaro (oroimena sustatzeko, irakurmena...) prestatu ditu udaleko adinekoeen sailak. Aurrez izena emateko epea irailaren 16tik 24ra izango da. Plazak mugatuak dira, eta zozketa egingo da. Udaleko webgunean eskuratu daiteke informazioa: [www.durango-udala.net](http://www.durango-udala.net).

**Besaiden, mendi istripuetan hildako mendizaleak gogoratuko dituzte etzi**

Aramaioko Orixol mendi klubak Oroitzapen Eguna antolatuko du domekan. Mendi istripuetan hil diren mendizaleak gogoratzeko eguna izango da, eta 1995az geroztik antolatzen dute. 11:00etan meza egongo da. 11:30ean, besteak beste, bertso eta dantza saioak ikusi ahalko dira. Inguru hartan txosna bat ipiniko dute jan edanagaz, eta txistulari eta txalapartariak giroa alaituko dute.

**> BERRIZ****Esker ona, oroimena bizirik mantentzeko lanari**

Frankismoaren biktimak oroitu zituzten herenegun

**> AMAIA UGALDE**

Derion 1936ko irailaren 11n fusilatu zituzten Felipe Urriaga Berrizko alkatea eta Jose Agirre guardia. Egun hori hartu dute aurten ere Berrizen Frankismoaren biktimak omentzeko. Atzokoan aipamen berezia egin zioten abuztuan hil zen Jesus Agirrerri. Berriz 1936 Gogoratzeko Maite Arrizabalagak nabarmendu zuen Jose Agirre aitaren gauza asko kontatu izan dituela Jesusek, eta elkarrearen lanean asko lagundu duela urteotan.

Eguaztenean, biktimei egingo dako lore eskaintzaz gainera, Ander Lipusek Joseba Sarriandiaren olerki bat irakurri zuen, eta Ander Erzillak pianoagaz eta Irati Ortubiak biolontxeloz abesti batzuk eskaini zituzten.

Frankismoaren krimenen kontra Argentinan aurkeztu den kereila zertan datzan ere azaldu zuten ekitaldian. Berrizko udalbatzak mozio bidez babestu du kereila hori. Omenaldiaren ostean, 1937ko dokumentalak proiektatu zituzten.



Berriztar ugari batu zen eguazteneko omenaldian.

**> IZURTZA****Gallastegi, Domarco eta Uriarte irabazle****> J. DERTEANO**

Amaitu dira jaiak, eta balorazio ona egin dute udal arduradunek. Santa Ageda ermitako ospakizunek zein Andra Mari eta Santo Tomas eguneko ekimenek izandako harrera azpimarratu dute. Jaietako tortilla txapelketa Angel Gallastegi Txek irabazi du, eta Zabalala eta Goenaga geratu ziren bigarren eta hirugarren. 40 bat parte hartzaile izan ziren. Marmitako txapelketa, aldiz, Oier Domarco eta Arrate Uriartek irabazi zuten. Mendigain taldea geratu zen bigarren, eta, Rosi Larrinaga eta Lidia Azkarate hirugarren.

**> IURRETA****Etxea alokatzeko laguntza eskatu dezakete gazteek**

Iurretan erroldatutako 18-35 urte arteko gazteek egin dezakete eskaria urriaren 1etik 31ra bitartean

**> AITZIBER BASAURI**

Etxebizitza alokatzeko gazteei zuzendutako diru-laguntzak emateko deialdia zabaldu dute. Iurretan erroldatutako 18 eta 35 urte arteko gazteentzako laguntzak dira, eta gehienez, 250 euroko laguntza hartzeko aukera izango dute. Eskariak urriaren 1etik 31ra egin ahalko dira.

Ohiko bizileku lez, Iurretan etxea alokatu duten gazteei errenta ordaintzen laguntza dute helburu diru-laguntzok. Ināki Totorikaguena alkatearen

arabera, "gazteei emantzipazio prozesuan eta helduen munduan sartzeko unean lagundu, eta herrian etxebizitza alokatzeko aukera sustatu gura da".

Hileko alokairuaren erdiari aurre egiten lagunduko diote, komunitate eta etxebizitzaren eranskinetako gastuak kontuan hartu barik; gehienez ere, hileko 250 euro. Bosgarren urtez banatuko dira laguntzok. Iaz, hiru eskari onartu zituzten. Bidebarrieta kaleko udal bulegoetan daude eskari-orriak.

**Enpresa proiektuen lehiaketa abian**

V. Enpresa Proiektuen Lehiaketaren oinarriak eta deialdia zabaldu dute. Herrigunean "produktu, lan prozesu edo zerbitzuen arloan ideia berriak ekarriko dituzten enpresa" berriak sortzea du helburu. Saria 6.000 euro izango dira.

Udal arduradunek aberastasuna eta enplegua sortzen lagundu, edo herriko merkataritza birgaituko duten enpresak sustatu gura dituzte, "eta norberaren enpresa edo denda sortuta lanean hastea erabaki dutenei bidea erraztea". Urriaren 30era arte aurkeztu daitezke proiektuak.

**> GARAI****Santa Katalinako jaiak ospatuko dute etzi**

Meza eta dantza saioa egongo dira ospakizunean

**> MARKEL ONAINDIA**

Santa Katalina ermitako jaiak ospatuko dute domekan Garain. Beste urte batzuetan legez, meza eta dantza saioa egongo dira ospakizunean. Ahalik eta dantzari gehienak auzokoak izango dira, urteetako ohiturari jarraitzeko asmoz. Berez, santaren eguna biharkoa da, baina domekan egingo dute jaiak.

Goizeko 10:30ean meza egingo dute bertan. Normalean Garai-ko elizan egiten dena bertara le-

kualdatuko dute. Horren ostean etorriko da dantza saioa.

Santa Katalinako ermita jai-bego pribatukoa da, baina jaiak auzotar eta garaitar guztiei begira antolatutakoa da. Antzinatek ei dator ospakizuna, baina 36ko Gerraren sasoian eten egin zen. Duela dozena bat urte ekin zioten berriro antolatzeari. Ermitagaz lotuta gordeta dagoen dokumentu zaharrena 1616koa da, testamentu batena, hain zuzen ere.

**Durangaldeko Baserritarren Elkarte**

Murueta, 6  
Tel.: **94 681 87 92**  
48200 ABADIÑO

katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe



Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak  
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

[saltsan.com](http://saltsan.com)

# ► Berbaz

**Juanmi Bravo Garitagoitia** | Mallabiko AEK-ko irakaslea | 44 urte ditu eta ermuarra da

## “Euskaltegiko ikasleek euskararen beharra sentitzen dute Mallabian bizitzeko”

Duela hogeit hamar urte gutxi gorabehera hasi zen lehen euskaltegiko taldea Mallabian. Urte batzuetan martxan, bestetan geldituta, lokalak aldatu... Orain kultur etxean finkatuta dago AEK-k zuzentzen duen jarduna. Bertan dabil Juanmi Bravo. 23 urte daramatza AEKn.



### > AMAIA UGALDE

**Herri txikia izanda ere, badauka euskaltegia Mallabian.**

Bai, eta herri txiki batek daukan zailtasunak dezente izaten dira. Eusko Jaurlaritzako diru-laguntza jasotzeko, besteak beste, ikasle ratioak daude, eta Mallabian gutxienez, sei pertsona egon behar dira taldea sortzeko, eta talde bat baino gehiago badago, zortzi. Mallabiak daukan biztanle kopuruarekin guztiz ezinezkoa da maila antzeko ikasleekin horrelako taldeak egitea. Orduan, gure erronka hori izan da: Mallabian talde iraunkor bat egitea, jakinda, denetarik egongo dela; ulertu bai, baina ia ezer hitz egiten ez duen jendetik hasita, gutxi gorabehera EGA maila daukan jenderaino. Taldea heterogeneoa da.

**Zelan konpontzen zarete?** Ohitu egiten zara, teknikak daude. Sarritan, asko dakien bat gutxi dakien batekin jartzen dut. Orduan, baten helburua besteari gauzak ondo azaltzea da, eta mintzamina landu behar du. Besteak, jaso, ulertu, eta bien artean gai izan behar dira ariketa egiteko. Erritmoa motelagoa da, baina aurrera goaz. Mintzamina da beti helburua. Gauzak egiteko borondatea behar da, eta motibazioa dagoenean jendeak aurrera egiten du. Azkenean, euskara gauza praktikoa bat da, eta praktikatuta ikasten da. **Hori dio aurtengo AEK-ren le-**

**loak: “Euskara praktikoa”.**

Hori, euskara praktikoa behar dugu. Eta hemen egia esan, zorionez, jende gehienak hori nahi du, herriko euskaldunekin berba egin, eta Mallabiko giroan sartu. Hona etortzen diren gehienak Mallabira bizitzera etorritakoak dira. Inguruko herrietakoak izaten dira, erdaldunak edo euskara oso gutxi dutenak.

**Mallabia euskalduna delako ikasi gura dute orduan euskara.** Bai, zorionez, Mallabia oso herri euskalduna da. Ikasleek nolabaiteko beharra ikusten dute; badakite jendeak badaukala gaztelaniaz hitz egiteko gaitasuna, baina egunero leku guztietan ikusten dute euskara dela herritarrentzako komunikatzeko hizkuntza. Konturatzen dira eurengatik dabilzala denbora guztian hizkuntzaz aldatzen. Hori da motibazio nagusia. Inork ez du premia larririk erakutsi titulu bat lortzeko. Egia da hiruk lortu dutela dagoeneko, aukera egoten delako. Maila zutela-eta azterketara joatera animatu nituen, eta atera zuten.

**AEK-k esana da ikasleen motibazioak aldatu egin direla. Gaur egun, beharrerako edo seme-alabengatik ikasten dela jendeak euskara.**

Bai. Mallabiko motibazioa agian irla bat da. EAEn dauden motibazioak aztertuko bagenu, iku-

siko litzakete motibazioak asko aldatu direla. Orain, lehen baino askoz ere motibazio akademikoagoa dago, askoz euskaldun gehiago dagoelako, hori ere bai. Eskolak euskaldun duen jendea etortzen da euskaltegietara. Askotan ez daukate erraztasun handirik, baina euskaldunak dira. Euren kurrikuluma hobetzeraz datoz, eta azken urteetako

“*Euskaltegiko ikasleek Mallabia herri euskalduna delako ikasi gura dute euskara*”

“*Sarritan titulu lortzeko motibazioarekin ez da erabilera bermatzen*”

krisiarekin gehiago; igarri dugu jendea kurrikuluma hobetzeraz datorrela. Titulu eske. Nahiko motibazio ahula da hori.

**Ez da erabilerarako saltorik egoten?**

Ez, motibazio horrekin ez da erabilera bermatzen. Oso erraza da ez erabiltzea, beste hizkuntza bat daukagulako komunikatzeko, oso indartsua dena, eta mundu guztiak dakiena. Horrek bai kezkatzen gaitu AEK-n, eta azken kanpainetan horretan zentratu gara: Euskara praktikatzearen garrantziaz jardun dugu, praktikarako taldeak sortzen gabiltza, eta azken Korriketan ere mezu hori zabaltzen saiatu gara.

**Tituluak lortzeaz gainera, motibazio orokorretako bat seme-alabengatik ikastea da. Mallabian ere bai?**

Bai. Mallabiko eskola herriaren isla da, eta oso eskola euskalduna da. Ikasleen euskara mailan alde handia igartzen da, euskaraz bizi diren gurasoak eduki ala ez. Euskaltegira etortzen diren batzuek esaten dute eskolan esan dietela euren seme edo alabak errefortzu bat behar dutela. Irakasle eta zuzendariak gomendatu egiten diete gurasoei euskara hobetzea edo ikastea. Ez bakarrik etxerako lanetan laguntzeko, euskaraz komunikatzeko premia dago. Gomendatzen diete telebista eta irratia euskaraz jartzea, eta liburuak euskaraz irakurtzea. Kontuan eduki Mallabiko herritarren erdia baserrietan bizi dela, oso giro euskaldunean. Guraso er-

daldunak dituen umearen eta baserriko umearen euskararen arteko aldea handia da.

**Fruituak ikusten dituzu? Ikasleek kalean erabiltzen dute euskara?**

Ez da erraza. Beldurra izaten dute. Askotan euskaldunok ez dugu ondo ulertzen mezu hori, eta berehala pasatzen gara gaztelaniara: “ya te hablo en castellano, ningún problema”. Ez dira konturatzen benetan besteak nahi duela esfortzu hori egin. Txarto hitz egiten badu, arrazoi handiagoz jarraitu behar duzu berarekin euskaraz. Euskaltegikook kalera irteten gara afarien aurretik-eta, ikus dezaten mallabiarrek bertan gaudela, ikasten eta esfortzua egiten ari garela, eta txarto egiten dugula, baina txarto egin behar dela gero ondo egiteko. Hori da bidea.

**Irakasle lanean, buruhaustea eta pozak izango dituzu.**

Proiektu moduko bat da niretzat. Herri txikia izanda, ikasleen prozesua hurbil-hurbiletik bizi izan dut, eta poz handia ematen du bertan ikasitakoa kalean egin dezaketela ikus-teak. Gogorra ikasleek bidea uztea izaten da. Egunean ordu bi honi dedikatzea ez da erraza. Gauza asko egin nahi dugulako, eta denboraz justu ibiltzen garelako. Ikasleak galtzeak pena ematen du. Ikasturte bateko helburua baino, prozesu bat delako.



# ZURE GORPUTZAK BADAKI DANTZAN

Gu laguntzeko prest gaituzu  
AIKO Taldea Zure dantza bidaidea

## DANTZALDI IBILTARIA

Bilbo, Donostia, Iruña,  
Azkain, Durango,  
Galdakao, Gernika,  
Markina, Sopela

DANTZA IKASTAROA  
(URRUTIK EKAINERA)

INFORMAZIOA / IZEN EMATEA:

[www.aikotaldea.com](http://www.aikotaldea.com)

 [www.facebook.com/aikotaldea](http://www.facebook.com/aikotaldea)

 @aikotaldea

[aiko@aikotaldea.com](mailto:aiko@aikotaldea.com)

Telefonoak:

634 423 539 (hegoaldean)

06 62 36 98 54 (iparraldean)



bbk<sup>2</sup>

BALLET T

TEATRO CAMPOS ELISEOS  
ANTZOKIA - BILBAO

UHA GON  
kulturgunea

[dantzan.com](http://dantzan.com)

[donostiakultura.com](http://donostiakultura.com)



eliralē



Sopelako Udala



# Iritzia

> GUTUNAK



gutuna@anboto.org  
eguztzeneko 17:00ak arteko epea

## Durangaldean lurra S.O.S

Izenburuan Euskal Herria ere jarri ahalko genuke. Euskal Herriko hainbat txokotan amalurraren aurkako erasoak egiten ari baitira, "aurrerapen"-aren izenean. Baina gure eskualdera etorrita, AHTarekin, zentral termikoarekin edo PTP berriarekin nahikoa izan ez, eta beste bi mehatxu hurbiltzen ari dira.

Alde batetik, Gueñes-Itsaso goi-tentsioko linea berriaren proiektuak aurrera jarraitzen du. 400.000 voltetako linea horrek, Gueñesetik Itsasora (Gipuzkoa) 72 kilometroko luzera edukiko luke, metalezko 35 dorre, eta Arratiatik etorrita, Zornotza, Iurreta, Garai, Berriz, Mallabia eta Zaldibar zeharkatuko lituzke, gero Gipuzkoako lurra hartzeko.

Ibilbide horrek kalte handia eragingo du igarotzen den 24 udalerrietako gune garrantzitsuetan, orokorrean, oso lurralde jendetsua baita, eta, dagoeneko, hainbat azpiegiturak beren aztarna utzi dute bertan. Azpiegitura hori gune jendetsuetatik urruntzeko beharra dago, alde batetik, Europar Batasunak jartzen dituen arreta irizpideak kontuan hartzen badira, eta, beste alde batetik, gure nekazal ingurua, ondarea eta ingurumen balioak babesteko beharra dagoelako.

2011ko maiatzean, dagoeneko, Berrizen burututako topaketa batean, kaltetutako udalerrietako 50 zinegotzik eta alkatek proiektua bertan behera uzteko eskatu zuten, proiektu horrek justifikazio nahikorik ez zuelakoan, eta osasun, ingurumen, gizarte eta ekonomiari eragingo lizkiekeen kalteak neurritz kanpokoak direla irizita.

Bestetik, isilpean, beste mehatxu garrantzitsu bat jarri dute martxan gure eskualdean, frackinga, hain zuzen. Pasa den otsailan eta martxoan frackinga aurrera eramateko ikerketa sismiko batzuk egin zituzten Bernagoitia auzoan (Zornotzan), udalaren baimenarekin.

Baina zer da frackinga? Frackinga edo haustura hidraulikoa, arbel harrietako gas naturala erauzteko erabiltzen den teknika da.

Frackinga, putzu bertikal zein horizontalak eginez, lurzorua zu-laketan datza. Harria hautsi, eta metanoa askatzeko, ur, harea eta gai kimiko kopuru ikaragarrien injekzioa beharrezkoa da, eta gai kimiko horietako zenbait oso kaltegarriak eta toxikoak dira. Eusko Jaurlaritzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat tokitan gas naturala erauzteko asmoa du Frackinga erabilita.

Frackinga teknika oso arriskutsua da, lurzorua azpian injektatzen den ur kutsatuak lur azala zeharkatu, eta akuiferoak kutsa baititzake, eta ingurumenean zein giza osasunean kalte konponezinak eragin.

Teknika horrek, gainera, metano isuria, lurrikarak, habitataren suntsiketa, kutsadura akustikoa eta lokatz toxikoen gainazal-putzuen eraketa eragiten ditu.


Lurra, gure etorkizuna, bakean uzteko garaia da. Jarri gaitezen martxan bi proiektu kapitalista horien aurka borrokatzeko. Utzi bakean Durangaldea! Utzi bakean amalurra!

Xabier Gutiérrez.  
Zornotza

## Trenetan luxua bai, komunik ez

Bilbo-Donostia tren linearen inguruan kexa bat plazaratu nahi dugun lagun talde bat gara. Lotsagarria da gaur egun, eta bere burua aurreratuztat duen komunitate batean, trenek komunik ez izatea, eta Durangoko geltokian ere komunik ez izatea. Hori Hirugarren Munduan ere ez da gertatzen. Ez harritu edozein egunetan pasilloak "marroi" kolorez agertzen badira. Orain 60 urteko trenek bazeuzkaten komunak. Luxuaren aurretik oinarritzko beharrezkoak irtenbideak bilatu behar dira. Dagokionak gure eskaera kontuan hartzea espero dugu, denon onerako.

Belen Larrinaga eta Nati Zabala



## Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215  
astekaria@anboto.org

- Izen-abizenak
- telefonoa
- helbidea
- eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideei jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

**-DATUOK BARIK, EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**

## SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI  
DIAZ

EAJ



## I AM BASQUE

Edo Negu Gorriak taldeko Fermin Muguruzak abesten eban gisa, "Euskalduna naiz eta harro nago". Ni basque naz, euskalduna naz. Ez dot esango ezer baino hobea dala euskalduna izatea, ez naz bilbotarkerietan sartuko, baina euskaldun izatearen egitateaz azpimarratzea gurako neuke gaur. Euskalduna naz eta ez beste edozer. Ez naz espainola edo frantsesa, amerikarra edo txinatarra. Ez dodaz horiek guztiak (eta beste hainbeste) arbuatuko edota mesprextatuko. Baina, errespetu osoz adieraziko dot ni basque nazela, basque bakarririk, ezer gehiago pilatu barik.

Hiru berbez osatutako adierazpen honek bere baitara batzen dau biziari begiratzekoera berezia. Basque soilik nazen heinean, aberri bakarra daukadan heinean, egunero lana nire Herriari bideratzen jakote betean. Ez dago, beste inora joateko asmoz, "puntuak irabazteko" beharrik, ez dago bestelako mendekotasunik. Basque garenok gure ekimen politikoaren hasiera eta abiapuntua leku berean daukagu. Eta, abestiak adierazten daben moduan, gure izaeraz harro gagoz, eta lau haizetara aldarrikatu nahi dogu. Euskaraz, gaztelaniaz... eta ingelesez. I am basque. Mundu zabaleko txoko guztietan ulergarria izan daiten. Gizarte baketsuaren nahia, Kataluniako herriak adierazi daben erara.

Berau da EAJK hilaren 29an barrero be ozen aldarrikatuko dabena: euskaldunak gara. Ez gehiago, ez gitxiago. Ehun urte baino gehiago emon doguz mezu bera gure Herriari bizirik iraunarazten, batez be frankismoarengaba baltzean, hainbat eta hainbat pertsonen euren bizia arriskuan jarri edota galdu ebenean helburu horri jarraituta. Eta, aldi berean, Europako zein munduko herrialde guztiei gure aldarrikapena zabaldu deutsegu. Pazienciaz, baina tinko eta sendo. Pausoz pauso, bidea egunero-egunero eginez, saihesbiderik hartu barik, biolentzian erori barik. Artez eta jendaurrean. I am basque, eta zu?

### Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215-Iurreta  
(Bizkaia)  
Tel.: 94 681 65 58  
Erredakzioa:  
94 623 25 23  
Publizitatea:  
94 621 79 02  
publi@anboto.org

2013ko irailaren 13a  
11. urtea - 513. alea

### Zuzendaria:

Jone Guenetxea.  
**Erredakzio burua:**  
Joseba Derteano.  
**Administrazio burua:**  
Itziar Belar.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo.  
**Publizitatea:** Goretzi Alonso,  
Amaia Huarte, Itxaso Altuna.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri,  
Itsaso Esteban, Markel Onaindia  
eta Amaia Ugalde.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi.  
**Zuzentzaileak:**  
Jon Ander Urkiaga.  
**Argazkilariak:** Kepa Aginako,  
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

**Juan Mari Conde** | Durango, 1961. | Motozale eta literaturazalea**> ITSASO ESTEBAN****Zelan sortu da liburua kalera-tzeko aukera?**

Lagunek animatu ninduten musika taldeek maketekin egiten duten bezala, lanaren zati bat argitaletxeetara bidaltzeko. Intereza agertu zuten Beta argitaletxean, eta eurekin kaleratu dut.

**Moto bidaiei buruzkoak dira liburuko kontakizunak.**

Estatuan zehar, 1991 eta 2001 bitartean egindako moto bidaia da kontatzen dudana. Espainiako probintzia bakoitzean intsignia bat lortzea zen hasiera batean helburutzat markatu nuena, eta 300.000 kilometro egin ditut aitzakia horrekin. Gero etorri da liburuaren egitasmoa.

**Bidaiari eta bidean aurkitutakoari buruzkoa da liburua.**

Bidaiatu ahala jendea ezagutu, eta konturatzen zara motoak eta mozkorraldiak baino askoz gauza gehiago dagoela lekuetan. Batez ere, bidaiatu dudan lekuetako jende nagusiarengan ipini dut arreta: eurak dira herrien historiaren jakintza handiena dutenak. Horrela ezagutu ditut euren bizitzetako istorioak.

**Zelakoa izan da liburua osatzeko prozesua?**

Bidaietatik etxera heltzean idatzi ditut istorioak. Hasieran ezer

# “*Bidaiatu dudan lekuetako jende nagusiarengan ipini dut arreta*”

Estatuan zehar motoan 300.000 kilometro egin ditut hamar urtean Juan Mari Condek. Bideko esperientziei buruzko liburua idatzi du. Durangoko Hitz liburudendan eskuragai dago ‘De ti’ bidaia horien narrazioa



argitaratzeko ezelako asmorik barik, neuretzako, egunerokoa bailizan idazten nuen. Baina gero eta garrantzi handiagoa ematen nion ondo idazteari. Konturatu nintzenerako 400 orri neuzkan idatzita, eta erakutsi ahala, jendeak baloratu egiten zuen.

Presarik barik, gozatuz egindako prozesua izan da? Presarik barik egin dut, baina gozagarria izan denik ere ez nuke esango. Lagun bati liburu-eskaintzan idatzi nion bezala, “min ematen dit idazteak, baina espero dut min horretatik irakurleak gozamina aurkitzea”. Gozatu dut, baina gogorra izan da, asko kostatu zait nahi nuena lortzea.

**Presarik barik, gozatuz egindako prozesua izan da?**

Presarik barik egin dut, baina gozagarria izan denik ere ez nuke esango. Lagun bati liburu-eskaintzan idatzi nion bezala, “min ematen dit idazteak, baina espero dut min horretatik irakurleak gozamina aurkitzea”. Gozatu dut, baina gogorra izan da, asko kostatu zait nahi nuena lortzea.

**Film bat egitea ere badarabilzu buruan, ezta?**

Film labur bat egin gura dut Koldo Serra lagun eta zine zuzendariaz, bai. Helburua da liburu bat erosi duten guztiei filma oparitzea. Pertsona oso oldartsua naiz, eta hori beste beroaldi batean sorturiko proiektua da. Liburu amaitu nuenean, ametsa hil zela sentitu nuen, ez nengoen ondo: “Orain zer?” galdetzen

nion nire buruari. Orain, nobela batean ere hasi naiz lanean.


**Zertan datza nobela?**

Liburu honen lehenengo parte da: narrazio liburu honen antzera, nobela ere autobiografikoa da, eta bat egiten dute puntu batean. Nire haurtzaroko istorio bat da idazten nabilen nobelaren haria, nire motoekiko zaletasunarekin lotura daukana.

**Zer helburu edo amets daukazu etorkizunerako?**

Bidaiatzeko aitzakia berriak gura ditut. Estatuan dauden milaka urteko arbolaren inguruko proiektua gauzatu gura dut, eta hasi naiz dokumentatzen. Txinan arbol horiek monumentuak bailiran zaintzen dituztela irakurri nuen liburu batean, eta horrek jakinmina sortu zidan.

## Istorio bilatzaile bidaietan



Juan Mari Conderen omenaldi hirukoitza da *De ti*, bere neskalagun izandakoari, errepideari eta motorrari gorazarrea.

“Beti sentitu dut idazleen ahalmenarekiko inbidia”, dio Condek. Motorrean, oinez edota kanoan egindako bidaiei buruz idazle ezagun eta hasiberriek idatzitako kontakizunak irakurri ditut bere liburua idatzi orduko. Conderena, “motozaleen On Kixote” da, bere lagun baten berbetan.

Urrian liburudendetan eskuragai ipiniko duten Juan Mari Conderen *De ti* liburuko narrazioak, kazetaritza lanetik ere badauka.

Bere barruan “istorio bilatzaile” sena hazten zihoala, bidaiatu ahala konturatu zela dio Condek: “Neugana inguratu, eta istorio bitxi eta interesgarriak kontatzen zizkidan jendeagaz iman modukoa neukala konturatu, eta oharrak hartzen hasi nintzen”.



## Anbotoren argazki lehiaketa

### “12hilabete, 12 herri”

Lagundu iezaguzu 2014ko egutegia osatzen.

**Sariak**

Argazki irabazlea: 300€

Paisaiarik onena: 200€

Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 31.

Informazio gehiago: [anboto.org](http://anboto.org)**Klik! >**

**> ITSASO ESTEBAN**

Hainbat kanta garaikide gehitu dizkiote, ikasturte honetarako, Durangoko Platerueneko Kantulagun ekimenean prestatu duten kantu-zerrendari. Orain lau urte ekimena abian ipini zutenean bezala, euskal kantuekiko eta kanturako zaletasuna ahalik eta gehien zabaltzeko helburuagaz abiatuko dute ikasturte berria.

Euskal kantutegiko kanta tradizionaleri, Ruper Ordorika edota Itoitzen kanta gehitu dizkiete, esaterako, aurten

Eguen iluntzetako antzoki barruko saioez gainera, hiru hilerik behin kalean zehar egingo dute emanaldia

Ekimena gazte jendearengana gehiago zabaldu asmoz, eta eskaintza anitzagoa egin asmoz, euskal kantutegiko kantu ohikoei, Ruper Ordorika edota Itoitzen kanta gehitu dizkiote, Kantulagun-en ikasturte berri-rako. Ugaitz Catalan antolatzaile eta abeslariak azaldu duenez, 60 kantu biltzen dituen liburuxka prestatu dute aurten.

**> ERAKUSKETA**

## Arte garaikide gaztearen erakusgarri: Bosteko

Eguaztenean inauguratu zuten lau artista gazteren lanak biltzen dituen erakusketa, Zornotzan

**> MUSIKA**

## Platerueneko Kantulagun: doinu garaikideak zerrendara gehituta

Irailaren 26an izango da lehenengo saioa; 19tik aurrera eman daiteke izena

Irailaren 26an, 20:00etan abiatuko dute Platerueneko Kantulagun txokoa Kantulagun 2013-2014. Irailaren 19tik aurrera eman daiteke parte hartzeko izena. Kantutegia eta CDa eskuratuko ditu matrikularen 15 euroak ordaintzen dituenak.

Eguen iluntzetan antzokian, eta hiru hilabeterik behin Durangoko kaleetan zehar ariko dira udazkenetik aurrera berriro.

Kantulagun-en kantutegia eta CDa eskuratuko ditu matrikularen 15 euroak ordaintzen dituenak

Gutxien jota, hiru musikari gonbidatuko dituzte Platerueneko ekimenean, ikasturte honetan. Antolatzaileek ez dute, oraingoan, izenik aurreratu.

Aurreko urteetan, hainbat kantari ezagun gonbidatu dute Platerueneko Kantulagunera: Xabier Amuriza, Etxe, Mikel Markez, Amaia Zubiria, edo Josu Zabalak hartu dute, besteak beste, ekimenean parte.



Xabier Amuriza izan zen Kantulaguneko lehenengo gonbidatua.

Irailaren 11n inauguratu zuten Bizkaiko Aldundiak eta herrialdeko beste lau udalek babesten duten Bosteko 2013 erakusketa, Zornotzako Zelaieta Zentroan. Arte garaikidea udalerrietara zabaltzea da ekimenaren helburua, eta lau artista gazteren lanak biltzen du: EHUKo ikasle izandako Alvaro Gil, Juana Garcia, Alaitz Arentzana eta Maria Ibarretxerena.

Hiru lan eraman ditu Alvaro Gil nafarrak erakusketara:

Lau artista gazteren lana dago ikusgai: Juana Garcia, Alvaro Gil, Alaitz Arentzana eta Maria Ibarretxerena

ikuslea dibertitzea, bisitariari sentsazioak eragitea helburu hartuta egindako eskulturak.

Juana Garciaren margolanak ere ikusgai daude Zelaieta Zentroan: Estatu Batuetako egonaldiaren ostean familia bakarreko etxebizitzetara buruz koadroen bidez egindako gogoetak dira: "Besteen etxeetako leihotatik barrura begiratzean sorturiko jakinmina" eragin gura luketenak bisitariagan.

Alaitz Arentzana eta Maria Ibarretxe artisten *Sleeping over plastic* laneko ametsei buruzko bideo lanak ere ikusgai daude Bosteko 2013 erakusketan.

Irailaren 29ra arte Zelaieta Zentroan egongo da erakusketa, eta ondoren ekimenaren parte diren Bizkaiko lau herritako aretoetara eramango dute.

**GEURE DURANGALDEA**

**LIBE MIMENZA**

Kazetaria



### Kirolaren aurka

Ados, kirolak bizi-itxaropena luzatzen du. Kirolak, bizi-kalitatea hobetzen du. Baina, kirolak kutsatu ere egiten gaitu.

Kirola hipermediatiko eta monotematiko da. Kirola ez da jokoa, kirola lehia da, lehia neurrigabea, oilar gerra matxista. Eta, batik bat, kirola kapitalismo basatia da.

Gainera, sermoia ezin da ekidin; predikatzaileek ez zaio falta han-hemen. Kafea hartzea ere kirola den herri honetan, kirol-kafe hartzen dugu. Eta esango nuke praktikatzeko beste endorfina askatzen dituela batek baino gehiagok predikatzean.

Garai batean jokoaz mintzo ziren zaleak, gaur eta hemen, presioaz eta baita prezioaz ere. Noizbait kirolaria, bere gaitasunak, trebetasunak eta esfortzua ziren hizpide. Egun, garaipena eta errekorra. Eta tropelak espektakulua nahi du beti: bere doping-a, show narkotikoa.

Baina zirkua ez da olinpiadetako zerrendan ageri den kirola. Sistemak iada sakez irabazi du partida, dirua gorri dago, jakin badakitelako hasieratik urdinek irabaziko dutela norgehiagoka.

Eta zer ikusi, hura ikasi. Tantz bizi gara joan den aspaldian, ez tentuz.

Diru publikoz bizi diren enpresa pribatuen jarraritzale gara gu: zuri-gorri, txuri-urdin, laranja... Koloreek ere zatitzen dute herria.

Eta txarrena da baloiak jaurtitzeko dizkigutela etengabe, golak binaka sartuta. Gu bitartean, oraindik ez gara ziabogara iritsi. Atezain on bat eta zapatilak beharko ditugu eskura edozein momentutan korrika irteteko. Ordua heltzean jakingo al dugu gorputza eta burua mugitzen? Jake mate.

**La Papa Teatro**  
**AMAMA ANAREN BIDAIA**

Irailak 21 • 18:00etan (gaztelaniaz)  
Irailak 22 • 18:00etan (euskaraz)

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGOKO UDALA

**PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia**

www.plateruena.net

**IRAILAK 13 21:30etan 5 euro**  
Markinako Senegaldar Elkartearen 10. urte  
EUSKADI NE DORT PAS telebista saioa zuzen  
AMINA POTE aurkezlea bertatik bertara.

**IRAILAK 20 22:00etan Doan**  
**LOKALETIK AT**  
EN CLAVE DE DOS (Durango-Berriz). Pop-Rock  
11 IKUSTEKO JAIKAK (Durango). Rock  
ORION CHILD (Durangaldea). Metal melodikoa

**IRAILAK 21 22:30etan 14 euro/6 euro**  
**DANI MATEO**  
Bakarriketak

Eguneko menua astelehenetik larunbatera  
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

**Hemen agertu gura badozu deitu!**



**94 621 79 02**



# ESKOLARA BUELTA

GEHIGARRIA




**Musika Moderno  
Gunea eta  
Umeentzako  
Musika**

**matrikula zabalik**


**JOLASTU DO-RE-MIan!**

**4-12 URTE BITARTEKO UMEENTZAT**

LAU URTETIK AURRERAKO UMEEK EUREN SORMEN ETA AHALMEN MUSIKALA LANTZEN DUTE TALDE MURRIZTUETAN, NATURALITASUNEZ ETA ERA DIBERTIGARRIAN.



**Alluitz, 3 behea • Durango • 94 603 27 50 • [www.rockizarra.com](http://www.rockizarra.com) • [info@rockizarra.com](mailto:info@rockizarra.com)**



## ESKOLARA BUELTA!

Iraila heldu da. Udako opor luzeen ostean txiki zein gazteak eskolara bueltatzeko unea heldu da. Txikienak apurka-apurka ari dira ordutegi berrira egokitzen. Nagusiagoek, berriz, pozik hartu dute lagunekin berriro elkartzeko unea. Motxilak bete eta ilusioz ikasturteari ekiteko unea da. Dena prest al duzu udazken zoragarri hau jantzi eta hornitzeko? Hona hemen proposamen erakargarri batzuk.



**Nork esan du neguko moda koloretsua ez denik?** Kolore gorriak distira emango die aurten neguko arropi.



**Elegantziaren bila.** 'Amerikana' negu sasoi honetarako proposamenetako bat da. Soineko zein prakekin beti dotore joateko aukera segurua da.



**URTXINTXA**  
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Mari kalea,9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Kupoi hau erakustearren %10eko deskontua

**TTIPI - TTAPA**



Iturriza kalea, 16 behea - Berriz  
Tel: 946 033 845





**Leggins eta leotardoak edozein unetan.** Leggins eta leotardo irudimentsuak praka zein gonekin uztautuko ditugu denboraldi honetan. Lore koloretsuak ere nonhai agertuko dira.



**Klasiko bat: bakeroak.** Mutilentzako hutsik egiten ez duen aukera bat dute aurten: praka bakeroak. Edozein unetan edozein arropa zein osagarrigaz eroso joateko aukera izango da.



Zoaz eskolara  
bueltan  
Bobolirekin



Astarloa 15 - Durango · Tel. 94 623 26 32  
0 hiletik 16. tailararte · [www.boboli.es](http://www.boboli.es)

# æek

## Euskara praktikoa

- Euskalduntze maila guztiak
- A1, A2, B1, B2, C1, eta 4. maila (C2)
- on line ikastaroak (Moodle)
- Autoikaskuntza  
(tutoretzatan oinarrituta)

### DURANGALDEKO AEK

#### DURANGO

94 681 73 49  
607 159 205  
abarrak@aek.org

#### ELORRIO

94 658 21 11  
607 600 901  
abizari@aek.org

#### ZORNOTZA

94 673 43 70  
607 151 917  
zornotza@aek.org



Eskolak



Mintza  
praktika



Barnetegiak



On line



Autoikaskuntza



Normalizazio  
planak



Titulu  
homologatuak

**æek**

Garena ikasteko  
para entendemos  
pour se comprendre

**eman izena**

www.aek.org  
902 362 294



# Hauspoa eredu aplikatuko dute Elorrión, DBHn

Goizez emango dituzte kurrikulumeko ikasgaiak; hiru arratsaldetan ere zabalduko dute ikastetxea

## > MARKEL ONAINDIA

Elorrioko Institutuan proiektu pilotu bat ipiniko dute martxan aurtien: Hauspoa. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari (DBH) lotutakoa da, eta EAEko beste hamabi ikastetxek ere parte hartuko dute. Denbora eredu berrien inguruko hausnarketa bultzatu gura du egitasmoak, gaur egungo ordutegiak sasoi berrietara egokitzeko ahaleginean. Institutuko zuzendari Josu Etxabururen ustez ekimen erakargarria da, eta hezkuntza komunitate osoaren ikuspegi-tik garatu beharrekoa dela dio. Urrian ekingo diote ordutegi eta programazio berriari.

Goizez emango dituzte kurrikulumeko ikasgaiak, 08:30etik 14:30era. Horrez gainera, astelehen, martitzen eta eguen arratsaldetan ere zabalduko dute ikastetxea. 15:15etik 17:00ak ingurura, ikasteko, talde-lanak egiteko edota eskolaz kanpoko ekintzak praktikatzeko. Etxabururen arabera, eskaintza hori helburu nagusiari, hau da, emai-

Denbora eredu berrien inguruko hausnarketa bultzatu gura du egitasmoak

tzak hobetzeari begira izango da. Ez emaitza akademikoak bakarrik, balioen ingurukoak ere bai: bizikidetzak, hartueman sanoagoak indartzea... *Hauspoa arratsaldeak* izena jarri diote egitasmo horri.

**Borondatezko partaidetza**  
Borondatezkoa izango da ikasleen partaidetza. Baina, kasu batzuetan asistentzia gomendatuko dute irakasleek. Esaterako, ikasle batek gai batean sakontzea behar badu, irakasleak gu-

rasoei ere bere iritzia helaraziko die. Horrela, eskaera onartuz gero, irakasleak eta bere gurasoek *parte hartze konpromisoa* sinatuko dute. Errefortzu horiek ez dira bakarrik ikasgaia gainditzeko lanetan dabilzanentzat izango, hobetzeko nahia daukatenean ere irakasleen gai gehigarriak jasotzeko aukera edukiko dute. Irailean udako ordutegiak dabilza beharrean, eta ikasle bakoitzaren premiak aztertze-ko aprobeztatuko dutela esan du Etxaburuk. Gainera, eskaintza guztiz itxita daukatenean, aurkeztu egingo diete ikasle eta gurasoei.

## Elkarteen partaidetza

Horrez gainera, arratsaldetako eskaintzan elementu berritzaileak ere sartu gura dituzte. Adibidez, ikastekniken ingurukoa. Euren iritziz, ikasle askok ikasteko zailtasunak dauzkate, eta horri buelta ematen saiatzeko ulermen ariketetan sakonduko dute. Bestalde, ohiko ikasketatik urrunago dauden ekintzetan ere parte hartu ahaliko dute ikasleek. Esate baterako, eguenean sormena landuko dute tailer-rean, plastika eta bideo-antzerkian murgilduta.

Etxabururen iritziz, herriko eragileen partaidetza ere garrantzitsua izango da esperientzia pilotu horretan. Etorkizunean, bere ustez, "auzolanaren egituraketa berri bat abian ipini daiteke" hezkuntza arloan. Elorrioko elkarteek ikasleentzako eskaintzan ekarpena egitea gurako luke. "Ez da eginda saldu diguten proiektua. Egiten goaz denon artean". Berba horiek erabili ditu ikasle, irakasle, guraso eta elkarten partaidetza beharrezkoa dela irudikatzen. Hamahiru ikastetxe daude proiektuan, baina bakoitzak bere eredu propioa landuko duela azaldu du Etxaburuk. Eurek Elorrioren ezaugarriak kontuan hartuko dituzte.



Josu Etxaburu, Elorrioko Institutuko zuzendaria, ikastetxeko patioan.

## Irakasleak egokitu eta ikasleen autonomia indartu

Hauspoa proiektua ez zen posible izango irakasleen konpromisorik barik. Hori azaldu gura izan du Etxaburuk, eta bide batez, euren ekarpena eskertu ere bai. 24 irakasleek parte hartuko dute *Hauspoa arratsaldeak* gidatzen. Zortzina banatuta, bakoitzak hiru arratsaldeetako batean edukiko du ardura.

Irakasleek ikasle bakoitzaren premiak ezagutuko dituzte, eta horren arabera osagarri bereziak prestatuko dituzte, hobera egin ahal izate-

ko. Beraz, orain arte egindako lanean aldaketak egin, eta eredu berrira egokitu beharko dute. "Irakasleok ere asko ikasiko dugu, lan egiteko beste eredu batzuetara ohitzen hasi gara-eta".

Irakasleek ikasle bakoitzaren premiak ezagutuko dituzte, eta horren arabera osagarri bereziak prestatuko dituzte

Ikasleek autonomia gehiago edukitzea ere bada ekimenaren beste helburuetako bat. "Amesten dugun egoera da ikasleek arratsaldetan 'lanera gatoz' esango digutena". Euren ikasteko lekuan eroso senti daitezela lortu gura dute, etxean lez.

Bide horretan, ikastetxeko hainbat gela ipiniko dituzte gazteen eskura: liburutegia, informazio eta komunikazioen teknologia gela... Hemendik aste gutxira ekingo diote bide berriari.

**emaiozu euskarari** | Matrikula Zabalik

**UDAL EUSKALTEGIAK**  
ikasturtea 13/14 matrikula zabalik

- Astelehenetik ostegunera (10 ordu).
- Astelehenetik ostegunera (6 ordu).
- Hizkuntza eskakizunak (1., 2. eta 3.a) prestatzeko ikastaroak.
- Autoikaskuntza zerbitzua Internet bidez (Moodle).
- Gurasoak.
- Ikasturtea URRITIK EKAINERA.

**IZENA EMATEKO EPEA IRAILAREN 2tik 20ra.**  
Bulego ordutegia: 10:00-13:00 - 15:30-18:30 / Ostiraletan: 10:00-13:00

Saibi kalea 10,3.a • 48200 Durango • 946 030 040 • www.durangoeuskaltegia.net

**Kurutziaga Akademia**  
Aerografia • Bitxigintza • Marrazkigintza eta pintura • Matematika eta modelismoa

**ARTE EDERRAK**  
Ume eta nagusientzako pintura eta marrazkigintza kurtsoak

**Matrikula Zabalik**  
• Astelehenetik ostiralera  
• Goiz eta arratsaldeko ordutegia

**Tel.: 94 603 05 27** Informa zaituz konpromiso gabe

info@academiakurutziaga.com • www.academiakurutziaga.com



## “Ikasle baten zailtasunen testuinguru guztia ulertzen saiatzen gara”

Ikasturteko martxa jarraitzeko laguntza gehiago behar duten umeekin egiten dute lan Maite Aldekoa eta Ana Jimenezek. Aldekoa psikologoa da, eta Jimenez Heziketa Bereziko irakaslea. Eileke zentroan dabilta beharrean. Euren ere hasi dute kurtsoa.

### > AMAIA UGALDE

**Ikasturte hasiera gogorra izaten da umeentzat? Zelan bizi duzue zuek?**

**Ana Jimenez:** Kasuaren arabera desberdintasun asko daude. Txikitxoenei agian gehiago kostatzen zaie, ez direlako kontziente. Handiagoek ikasi dute berriro eskolara doazela. Bertako araukin gogoratzen dira, eta hobeto ulertzen dituzte.

**Maite Aldekoa:** Denak heltzen dira deskonektatuta, eta hori normala da, hori da udako helburua. Normalean segituan hartzen dute martxa. Nik uste dut helduen antzera dela, guk ere behar dugu denbora hori. Lehenengo astean eman dezake apur bat galduta daudela, baina gero gogoratzen dira ikasitakoekin.

**Ikastetxeko errutinatik zer kostatzen zaie gehien?**

**M. A.:** Ulertzea errutina batzuk dituztela, adi egon behar direla,

arauak errespetatu behar dituztela... Diziiplina hori.

**Premia bereziak dituzten umeekin egiten duzue lan. Zer lantzen duzue gehien?**

**M. A.:** Umeen ezaugarriak kontuan edukita planteatzen dugu tratamendua. Arlo asko hartzen ditugu kontuan: emozionala, akademikoa, soziala...

**A. J.:** Orain, gehienbat, hemen errefortzu edukatiboa egiten dugu, Durangon hori da gehien eskatu digutena.

**M. A.:** Familiekin, eskolagaz eta medikuekin gaude harremanetan. Arazoen testuinguru guztia ulertzen saiatzen gara. Batzuetan ez da erraza izaten jakitea zer gertatzen den, faktore askok eragiten duelako. Ume batek zailtasunak baditu arlo akademikoan, edo ezgaitasun intelektuala badauka, arlo hori landuko dugu bereziki, baina beste arlo guztiak ere kontuan hartuta.

“

*Gure saioak oso desberdinak izan daitezke, umeek adin berdina edo antzeko gaitasunak eduki arren”*

“

*Ume batek arlo akademikoan zailtasunak baditu, arlo hori landuko dugu, baina beste guztiak ere bai”*

**Arlo soziala aipatu duzue. Gela barruko harremanetan arazo asko dago?**

**M. A.:** Bai, umeak txikiak izan arren, zailtasun sozialen bat edukiz gero, gelakideek etiketa segituan jartzen dute, eta etiketa horren arabera rol bat hartzen dute. Lotsatia dela, edo lodia, edo betaurrekoduna... Rol bat hartzen dute, eta ez daukate segurtasunik. Azkenean, rol horrekin geratzen dira, eta gure lana da rol horri aurre egiteko errekurtsioak ematea. Lehenengo indibidualki egiten dugu lan, eta gero taldean.

**A. J.:** Arlo soziala eta komunikazioa talde txikietan landu gura izaten dugu, gero, gela handian eurek praktikatu ahal izateko.

**Arlo asko hartu behar dira kontuan, orduan. Zelan antolatzen dituzue saioak?**

**M. A.:** Ume bakoitzak une bakoitzean premia bat dauka, eta

horregatik ezin dugu kurtso hasieran planifikazio bat pentsatu. Saioak oso desberdinak dira umeek adin berdina eduki arren, eta antzeko gaitasun eduki arren.

**A. J.:** Sei urteko ume batek, adibidez, eduki dezake lehenengo idazketa eta komunikazio saio bat, eta gero, jolasteko tarte bat. Egin beharrekoak eginda, erabaki dezala zertan jolastu gura duen.

**Garrantzitsua izango da eskola eta gurasoekin koordinazioa izatea.**

**M. A.:** Bai. Normalean, irakasleak konturatzen dira ikasleek jarraipen berezia behar dutela. Gurasoekin beharrezkoa da berba asko egitea, eta arazo fisiko bat badago medikuek ere parte hartzen dute prozesuan.

**A. J.:** Eskoletan laguntza behar dute, eta orain, murrizketen eruz, gehiago.

**KAMIKOPIAK**  
KOPISTEGIA

Berriotxoakalea 9  
Tel.-Faxa 94 623 14 31  
48230 ELORRIO  
kamikopias@gmail.com

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak  
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

**Arrike**  
Liburudenda

behar duzun eskola-materiala!  
- Testu liburuak  
- Hezkuntza eskolarako liburuak

Kalebarria, z/g • 48200 Durango  
Tel.: 94 620 18 93 • Fax: 94 681 64 03

**hitz**

liburudenda

artekalea 14 durango 94 681 07 76  
info@hitzliburudenda.com

# Errepikapenak eta eskola aldaketak, baikortasunez

Gelakidez aldatzea, maila errepikatzea... ez dira errazak izaten askotan

## > A. U.

Ikasturtea hasterakoan, maila errepikatu behar duenak edo eskolaz aldatu denak egoera berrira egokitzeko denbora behar du, eta batzuetan zailtasunak egon daitezke. Kasu horietan, gurasoei ahalik eta lasaien egoteko aholkatzen diete Maite Aldekoak eta Ana Jimenezek: "Batzuetan ondo joaten da dena, eta gurasoen beldurra handiagoa da umeen ezinegona baino". Aldaketa normaltasunez hartu eta adi egotea aholkatu dute, "zailtasunak egonez gero, ahalik eta arinen lanean jartzeko. Horrela arazoa txikiagoa izango da".

## Errepikapenak

Kurtsoa errepikatu behar duena "tontoa" da, "alperra"... Oso konnotazio negatiboa dauka errepikatzeak. Aldekoa eta Jimenezek berbetan, hori aldatu egin behar da. Bestela, ikasleek rol negatibo hori sinetsi, eta horrela jokatu dute, motibazio barik: "Errepikapenak porrotak bailiran ikusten dira gizartean, eta, kontrara, aukera berri bat dira izan. Benetan positiboa da;

beste aukera bat daukazu ikasleko, eta heldutasun handiagoa gaz ikasi ahal duzu gainera".

"Zelan joango naiz txikiagokin?". Ikasleek zigor moduan ikusi ohi dute errepikatzea, eta gurasoei ere kostatu egiten zaie

"Batzuetan ondo joaten da dena, eta gurasoen beldurra handiagoa da umeen ezinegona baino"

"Errepikapenak porrotak bailiran ikusten dira gizartean, eta, kontrara, aukera berri bat dira izan"

egoera era baikorrean ikustea: "Atzerapauso bat da, urtebete galtzea... Baina ez da hori; ordu arte gauzak ia landu ditu, baina orain gehiago finkatuko ditu". Autoestimua aldetik ere, seguruago sentituko direla azaldu dute Aldekoak eta Jimenezek.

Gurasoek seme-alabei mezu baikorrak ematea gomendatzen dute profesional biek. "Motibatzen saiatzea garrantzitsua da. Orain oso ondo egingo duela esan ahal diogu, badakiela zer landu behar duen, besteek baino gehiago jakingo duela...".

## Ikastetxez aldatzea

Eskola aldaketa herri aldaketa-gaz batera etortzen da batzuetan, baina, sarritan, eskola aldaketa arazo bat sortu delako izaten da; "rol batez edo etiketa batez amaitzeko egiten da aldaketa, eta zerotik hastearen antzekoa da". Baina talde berrian sartzea ez da beti erraza izango.

"Lagun berriak egingo dituzu, dena ondo joango da". Aldaketa onerako egingo dela transmititu behar du gurasoek. Bi adituek azaldu dutenez, "beldurra normala da, batez ere lehenengo zailtasunak egon badira, baina beldur hori umearengan ez islatzen saiatu behar dute gurasoek". Aldaketak onak direla azpimarratu dute: "Azken finean, bizitza osoan ematen dira aldaketak, eta ohitu egin behar dira".



**IK Iurreta kopistegia**

**ESKOLARA BUELTA**

**ESKOLA MATERIALEAN ESKAINTZA ZABALA**

**INPRESIO DIGITALA DISEINU GRAFIKOA**

Bidebarrieta, 1  
48215 IURRETA  
T: 946 811 070  
mac@iurretakopi.com





**EROSKI**

*zurekin*

# BERRIRO ESKOLARA

Balioak ikasten

2013-2014 ikasturtea



**> IURRETAN**

# Atzerriko hiru hizkuntza praktikatzeko aukera

Ingelesa, frantsesa eta alemana praktikatzeko gunea eskainiko dute Iurretako Herri Bibliotekan

**> ITSASO ESTEBAN**

Azken urteetan atzerriko hizkuntzen liburutegiko sailean erabiltzaile gehikuntza handia nabaritu dute Iurretako Herri Bibliotekan. Eta inbertsio handia egin dute sailaren zerbitzua aberasteko. Ziortza Onaindia Herri Bibliotekako arduradunak azaldu duenez, “gero eta jende gehiago dago atzerriko hizkuntzak ikasten”. Erabiltzaile horientzako ingeles, frantses eta aleman mintzapraktika taldeak ipiniko dituzte martxan, aurten, lehenengoz.

Hizkuntza horietan komunikazio gaitasuna daukaten 16 urtetik gorakoei zuzenduriko eskaintza da Iurretako Bibliotekakoa: “lasai berba egiteko gunea”. Deustuko Unibertsitateko eta EHUko ikasleek jardungo dute taldeak dinamizatzen. Irailaren 27ra arte eman daiteke izena.

Herri Bibliotekaren eta Ibarretxe kultur etxearen ikasturte

berrirako eskaintza aurkeztu zuten, Iñaki Totorikaguena alkateak, Pili Jimenez kultur etxeko arduradunak eta Ziortza Onaindia liburuzainak, atzo.

Deustuko unibertsitateko eta EHUko ikasleek jardungo dute mintzapraktika talde horiek dinamizatzen

“Adin tarte guztietako iurretarrak liburutegira erakartzeko” hainbat ekimen ipini dituzte azken urteetan Iurretako Herri Bibliotekan martxan. Denak mantendu dituzte. Ziortza Onaindiak azpimarratu duenez, “irakurketa klubak dira gure harrobia: horiekin lortu dugu irakurzaletasuna, ume, guraso eta aitita-amamen bitartez etxeetara sartzea”. Ekimen erakargarriak eskainita, eta he-



Ziortza Onaindia Herri Bibliotekako arduraduna, Iñaki Totorika alkatea, eta Pili Jimenez kultur etxeko arduraduna.

erriko elkarteak eta ikastetxeak lagun hartuta, lan gogorraren ondorioz lortu dute ekimen horiek guztiak egonkortzea, Totorikaguena alkatearen arabera. Aurten ere ez dute hutsik egingo ume zein helduentzako hileroko ipuin-kontalariak, irakurketa klubak, gazteentzako sormen lehiaketak, jaioberri eta gurasoentzako eskaintzek, emakumeen literatur tailerrak...

Ekimen horien guztien arrakasta, eta Iurretako Bibliotekak aurten FEMP sari nagusia jaso izana ospatzeko, bestalde, Bibliotekaren Eguna ospatzeko egitaraua prestatzen dabilta Herri Bibliotekan. Iurretako Bibliotekan irakurketa bultzatzeko egindako lana goraiatu dute sari horregaz. Ospakizun egun horretarako, umeentzako ipuin-mozorro jaialdia, eta hel-

duentzako poesia errezitaldia antolatatu dituzte, besteak beste.

**Askotariko tailerrak**

Ibarretxe kultur etxeko aisialdirako eskaintza ere aurkeztu zuten, atzo, Iurretan. Hamaika tailerretan parte hartzeko 287 plaza eskainiko ditu ikasturte honetan Iurretako Udalak: pintura, yoga, sabel dantza, edo sukaldaritza, egin daitezke, esaterako.

**> PROGRAMAZIOA**

# La Papa Durangoko taldearen obra, San Agustin zabaltzeko

Datorren hiruhileko programazioa aurkeztu dute Durangoko San Agustinen



Herriko La Papa antzerki taldeak zabalduko du, Durangoko San Agustin kulturguneko udazkeneko programazioa. Emanaldi bi eskainiko dituzte. *Amama Anaren bidaiak* obra antzeztuko du, irailaren 21ean (gaztelaniazko bertsioan) eta 22an (euskaraz) La Papa taldeak.

Kulturguneko datorren hiruhileko programazioaren aurkezpenean parte hartu dute Ricardo Combi *Amama Anaren bidaiak* obraren egileak, eta Izaskun Asua eta Nazaret Froufe Durangaldeko aktoreek, asteon.

‘Amama Anaren bidaiak’ obra antzeztuko dute, irailaren 21ean (gaztelaniaz) eta 22an (euskaraz)

Izaskun Asua, Nazaret Froufe eta Markos Gimeno dira obra horretan antzezte lanetan dihardutenak; amama Ana, alaba Tere eta Antonio suhiaren papeletan, hurrenez hurren.

Duela bost urte, nagusiei zuzenduriko antzeztan bat sortzeko enkarguari erantzunez sortu zuten Durangoko *Amama Anaren bidaiak*, La Papa taldekoek, eta ume eta nagusiei eskaini zieten hainbat emanalditan.

Duela lau urteko emanaldi haieetatik, hainbat moldaketa egin dituzte hasierako testuan, eta emanaldietan ume eta nagusiak elkartzea nahi dute San Agustingo emanaldietan. Izan ere, Combi zuzendariaren arabera, “umeekin zein nagusiekin ere oso ondo funtzionatu baitu

obrak”. Familia osoari zuzendurikoak dira, beraz, irailaren 21 eta 22rako San Agustin kulturguneko hitzorduak. Kulturgunearen arduradunek azaldu dutenez, gainera, Durangoko Udaleko nagusien sailak lagunduta, baten prezioan sarrera bi emango dizkiete elkarrekin doazen aitita edo amama-bilobei.

Ricardo Combi zuzendaria: “Nagusiekin zein umeekin ere oso ondo funtzionatu izan du antzeztan”

Belaunaldien arteko harremanari buruzkoa da *Amama Anaren bidaiak*: amonaren zahartzaroko zailtasunek familiarteko harremanari zelan eragiten dioten erakusten duena. Izaskun Asua aktorearen hitzetan, “belaunaldien arteko harremanaz gogoeta egitera” gonbidatuko dute ikuslea. “Obraren mezuak ikuslearengan eragitea” espero duela gaineratu du Nazaret Froufe aktoreak.

**Urriko beste hiru eskaintzak** “Harribitxia delako”, ezin galtzekoen zerrendan azpimarratu du Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko kudeatzaileak urriaren 5ean bertan aukeran izango den *Rien a dire* ikuskizuna. Leandre konpainia katalanaren lana da aipaturikoa, “klown ikuskizun poetikoa”. Leandre eta Lila Ribera dira antzeztuak,

eta Arrazolak azaldu duenez, Tarregako antzerki jaialdian gehien goraiaturiko ikuskizunetako bat izan da. Obra Euskal Herrian ikusteko aukera bakanetarikoa izango da, urriaren 5eko Durangoko hori.

Egitarauaren aurkezpenean Jon Kepa Garro zinegotziak azpimarratu duenez, iazko tarifak mantendu dituzte 2013-2014 ikasturterako: “Sarreraren prezioa ez dadin izan inor kulturgunetik aldentzeko arrazoia”. Leihatilari iazko prezioak mantendu dituzte, eta baita bazkideentzako onura eta deskontuak ere. Aurten, bestalde, langabetuentzako %25eko deskontua ere aplikatuko dute San Agustinen.

Hamabosgarren urteurrena beteko du kulturgunek aurten, eta abendura arte, 14 ikuskizun izango dira bertan. “Ikuskizunen kantitatea eta kalitatea mantentzeko” asmoagaz pentsatu dute programazioa.

## Urrikoak

**‘Amama Anaren bidaiak’ (La Papa Teatro)**  
· Urriaren 21 eta 22an, 18:00etan.

**‘Rien à dire’ (Cía Leandre)**  
· Urriaren 5ean, 20:00etan.

**‘Romeo’ (Teatro Meridional)**  
· Urriaren 12an, 20:00etan.

**‘Acrometría’ (PSiRC)**  
· Urriaren 27an, 19:00etan.



## Izan ezazu eztegu eksklusiboa gure Pergolan!



**H**arrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak bai zuzendariak eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitute.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak... Edo besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12

48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530

[www.hotelharrison.com](http://www.hotelharrison.com)

[hotelharrison@hotelharrison.com](mailto:hotelharrison@hotelharrison.com)

*Harrison hotelaren eskutik bi pertsonentzako afaria eta gaua zozkatuko ditugu*

**Durangaldeko zein bi herritan antolatuko dute Ardi Jaia?**

ERANTZUNA: [zozketa@anboto.org-ra](mailto:zozketa@anboto.org-ra) edo Anboto Astekaria - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta

# **Kirola**

**GURUTZE FRADES** | 31 urte, lurreta | Mugarra triatloi taldeko triatleta

## *“Berez, lasterketak ospakizun bat dira, sufrimendua entrenamenduetan dator”*

Datozen aste biak distantzia luzeko Espainiako txapelketa prestatzeko erabiliko ditu Fradesek



Gurutze Frades, distantzia erdiko Espainiako triatloi txapelketan irabazitako urrezko dominagaz.

### > JOSEBA DERTEANO

**Extreme Man zirkuitua lau lasterketek osatzen dute, eta aurreneko hirurak irabazi ditu Gurutze Fradesek. Horrez gainera, bera da distantzia erdiko zein luzeko triatloien Espainiako txapelduna. Eta oraindik ez du goia jo. Lasterketaz lasterketa bere aurreko denborak hobetzen dabil.**

### Espero zenuen hiru Extreme Man segidan irabaztea?

Faboritoen artean nengoen, baina faborito izateak ez du ezer esan gura. Lasterketa batean hamaika gauza gertatu daitezke: erorikoak, zulatuak, gorputzaldi txarrak... Beraz, pozik nago.

### Laster Menorkan jokatu dena irabaziz gero, lautik lau.

Ez dut parte hartuko. Urriaren 6an Espainiako distantzia luzeko txapelketa dut eta horrelako

lasterketa luze baterako prestakuntzak entrenamendu jarraiak eskatzen ditu. Triatloi bat amaitzeak atsedean egunak eskatzen ditu ostean, eta horrek jarraian eta sarritan entrenatzeko eskema apurtzen du. Orain, entrenamenduetara mugatuko naiz.

### Oraintsu distantzia erdiko Espainiako txapelketa irabazi zenuen.

Niretzako distantzia luzeko txapelketa hitzordu garrantzitsuena den moduan, askorentzako distantzia erdiko hura zen, eta beren beregi horretarako prestatu barik nindoanez, estututa joan nintzen. Urteetan izen bat egin dut, eta ez nuen edozelako lasterketa egin gura. Gero, triatloian bertan uste baino hobeto aurkitu nuen nire burua. Gustura ibili nintzen.

### Calella-ko (Katalunia) distantzia luzekoari begira zer helburu dituzu?

Nire helburua titulua berritzea da. Iaz 9.52ko denbora egin nuen, eta denbora hori hobetzen badut, primeran, baina ez da behinena.

### Zelakoa izaten da iron man distantzia baterako prestaketa?

Oso luzea. Asteleheneetik domekara goiz eta arratsaldean maiz entrenatu beharra dago. Konstantzia behar da.

### Sarritan jendea ez da jabetzen triatloiak egiteak zer prestaketa eskatzen duen.

Bai. Berez lasterketa egunak ospakizun antzeko bat dira, egindako lanagaz gozatzeko une bat. Sufrimendu egunak aurrekoak dira, entrenamendu saio horiek. Gaur egun, nire bizimodu osoa triatloietara

bideratuta dago. Sarritan, entrenatu ostean beste ezertarako indar barik egoten naiz. Egunero gugaz dabilenak bakarrik ulertzen du gure egoera. Umeek jan eta lo egiten duten moduan, guk entrenatu, elikatu eta lo egiten dugu denboraldiko une askotan. Ohiko errutinatik ateratzeak gorputzari erasaten dio. Ez da ulertzeko erraza, baina horrela da.

### Elikadura osasuntsuak ere garrantzi handia du.

Horrela da. Esaterako, distantzia luzeko lasterketan kalkulatu eramatendutzerjan behar dudana. Bestela ez nabil ondo. Jendeak uste du gutxi jaten dugula, baina nire dietak egunean 3.500 kaloria ditu. Kaloria horiek gorputzari nola eman da kontua.

### Azken urte bietan triatleta profesionala zara. Bizimodua asko aldatu zaizu?

Hasieran triatloien mundua joko bat zen niretzat. Apurka bidea egin eta... profesionala naiz! Detailerik txikiena zaindu beharra dago. Esaterako, uztailean lasterketa baten aurreko egunetan bataio elizkizun bat nuen, eta pentsatu nuen: “Ezin dut edozein oinetako eraman, ezin naiz arriskatu”. Lasterketa batera bidean ez dut aire egokiturik ipintzen. Mila detaile dira. Nik barneratuta ditut, baina inguruko jendeari arraro egiten zaio.

### 31 urte gaz zure ibilbidearen zein unetan aurkitzen zara?

Gero eta distantzia luzeagoak eta gero eta denbora hobekin egiten ditut. Alderdi guztietatik hazten nabil. Lehen Iurretan inork ez zekien triatleta nintzenik, eta gaur, kalean nenbela, herritar batek denboraldia amaitu dudana

galdetu dit. Batez ere, aurten sumatu dut aldaketa hori.

### Datorren urtean Txinan izango da munduko txapelketa. Baduzu joateko modurik?

Ia seguru, ezin izango dut joan. Babesle indartsu eta antolaketa tekniko egoki barik zaila da.

### Federazioak ez luke gehiago lagundu behar?

Federazioak ez du baliabiderik eta gogorik distantzia luzean sartzeko. Beste herrialdeetan ez dakit nola, baina talde handiak mugitzen dira, eta baliabideekin. Sasoi batean, distantzia olinpikoan zebiltzanek laguntza gehiago zituzten; orain, horiek ere euren kabuz bilatu behar dituzte baliabideak. Kuriosoa da; triatloian afizioak gora egin du azken urteetan, baina laguntzek behera. Ez dakit zergatik den, baina hori sumatzen dut.

“

*Gaur egun, nire bizimodu osoa triatloien mundura bideratuta dago”*

### Korrika egiteko ohitura sustatzeko iaz ekimen berezi bat abiatu zenuen. Aurten izango du jarraipenik?

Sarritan ez dugu korrika egiteko ohiturarik etxetik irteteak alferra ematen duelako, edo ez dugulako norekin irten. Nire helburua zen hasierako aldietan nigaz batera hasi, eta apurka, parte hartzen zutenen artean taldetxoak sortzea, gero euren kontura jarraitu zezaten. Aurten ere galdetu didate ea zeozer egingo dudana, eta badarabilte zeozer buruan: azarotik apirilera arte iraungo lukeen egutegi bat akaso... forma eman behar diot.

 **CENTRAL FORESTAL**

42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura



**Smurfit Kappa**  
Nervión

Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!


Jasangarritasuna bermatzen hurrengo ziurtagirien bitartez:



&gt; PILOTA

## Eguenean ekingo diote Olazar pilota txapelketari Zaldibarren

Azpiri elorriarrak eta Galarzak osatutako bikotea multzoburuetako bat izango da



Igor Azpiri elorriarra faboritoen artean kokatu dute. K. Aginako

&gt; JOSEBA DERTEANO

Datorren egunean hasi eta urtezahar egunera arte, Olazar txapelketak esku pilotaren munduko promesarik onenak eta afizionatuetan puntan dabil-tzan pilotari eskarmentudunak

batuko ditu astero-astero. Ohi moduan binakako txapelketa bat (hamasei bikote) eta lau t'erdiko beste bat (hamasei pilotari) prestatu dituzte. Joko sistema urterokoa da: pilotariak lau multzotan banatuko dituzte.

Bikoteak mailaren arabera sailkatu, eta faboritoak kanporaketak aurrera joan ahala sartuko dira lehian. Binakako txapelketan, Igor Azpiri elorriarrak eta Kerman Galarza galdakoztarrek osatutako bikotea

izango da multzoburuetako bat. Yoldi-Arratibel, Artola-Tolosa eta Urbiet-Diez bikoteak ere faboritoen artean daude.

Lau t'erdian promesarik onenak lehiatuko dira Zaldibarko pilotalekuan. "Gazteak eta oso onak dira", adierazi du Enrique Agirrebeitia txapelketako antolatzaileetako batek. Horieta hainbatek aurrekontratuak dituzte Aspe edo Asegarcegaz.

Hurrengo eguneko lehenengo jardunaldian (21:30ean) Durangaldeko pilotari bik jokatuko dute: Aitor Arabiourrutia abadiñarrak Olaetxea II.aren aurka jokatuko du lau t'erdian; binaka Jon Landaburu elorriarrak Albaradogaz osatuko du bikotea, eta Ojuel eta Aizpitarte bikotearen kontra jokatuko dute. Uzkudun abadiñarrak, eta Elordi eta Aldape mallabiarrek ere parte hartuko dute txapelketan.

&gt; Bideoa eskuragarri

Iaz txapelketaren 25. urteurrena ospatzeko bideo lan bat argitaratu zuten. Gaur egun, profesionaletako izarrak direneta asko Olazarren aritutakoak dira, eta horietako askoren adierazpenak jaso ditu bideo lanak, finaleko irudiez gainera. Txapelketak iraun bitartean, eguenero pilotalekuan ipinitako postu batean bideo lan hori salgai izango dute.

&gt; ADITUAREN TXOKOA



**Juan Carlos Perez**

Areto-futbola

### Hegemonia dugu

Kategoria denetan 22 talde (kadete, gazte, afizionatu...), eta Hirugarren mailan hiru talde izateak Durangaldea Bizkaiko eta, oro har, euskal areto-futbolaren buruan kokatu du. Kokapen hegemoniko hori Mallabiak azken unean mailari eutsi ziolako, eta Sasikoak eta Elorrioko Buskantzak mailaz igo zutelako gertatu da.

Mallabia Tabirakolor taldea osatzen dabil Jero Ugarteren gidaritzapean eta durangarrak J.C. Carre-ragaz prestatzen dabilta, entrenatzaile truke kurioso batean. Elorriok, hiru talde afizionatuen igoera ospatu ostean, Hirugarren mailan talde sendoa izango du.

Abadiñoko Lagun, euskal ligako debut handiaren ondoren, bakarrik dago ahalik goren amaitzeko borrokan. Maila gorenean, bost talde ditugu, 20 derbiren protagonista izango direnak. Presion Break faborittoa da, baina Sasikoa eta Elorrioko filialak arerio gogorrak izango dira. Kurutzia eta mailaz igo den Sapuberri ere ez dira nolana hiko arerioak izango. Lehenengo erregionalean, Abadiñoko Gazttxiek eta Dantzarik igoera dute helburu. Elorrio C ere maila horretan dabil. Bigarren erregionalean sei talde ditugu, eta hiru debutariak dira: Elorriko Txiki, eta Mallabia eta Berrinen filialak. Iaztik Mendibeltz, Gu Lagunak eta Racing Tolosto taldeek jarraitzen dute. Sasikoari esker, emakumeetan ere ordezkari bat izaten jarraitzen dugu. Hasi dadila lehia eta zorte on guztiei.

&gt; SASKIBALOA

## Tabirakoko emakumeen prestaketa bide onetik doa

Zallako Nagore Saratxaga Torneoa irabazi dute; gizonak Baque Torneoa lehiatuko dute asteburuan



Tabirako Baque emakumeen aurtengo taldea Nagore Saratxaga trofeoagaz.

Tabirako Baque emakumeen talde nagusiak Zallako Nagore Saratxaga Torneoa irabazi zuen joan zen asteburuan. Urriaren 6an hasiko duten denboraldiari begira, prestaketa bide onetik doala erakutsi zuten, finalean Leioako Irlandesas menderatu ondoren. Hainbat urtez Alberto Molinaren aginduetara egon ondoren, aurten Jesus de Vicente izango du entrenatzaile Tabirako Baque emakumeen taldeak. Bestalde, Ane Garitaonandiak

antolatzaile juniorrik onenaren Nagore Saratxaga saria jaso zuen.

&gt; Gizonak Baque torneoa

Gizonak Baque Torneoa jokatuko dute asteburuan. Zapatuan, 19:00etan, Zarautz taldearen kontra jokatuko dute finalaurrekoa Landako Kiroldegian. Aurretik, 17:00etan, Loiola eta Arrasate neurtuko dira. Galtzaileak domekan, 10:00etan, neurtuko dira eta finala 12:00etan hasiko da.

&gt; MENDI LASTERKETA

## Mutrikuko proba irabazi du Oier Ariznabarretak

Oier Ariznabarreta durangarrak Mutrikuko Arno Trail Sprint Race mendi lasterketa (7,5 kilometro) irabazi zuen joan zen domekan. Lasterketa laburra zen eta hasieratik bizi-bizi ekin zioten guztiek. Arno gainera bakarrik heldu zen Ariznabarreta. Bigarren sailkatuari minutu batetik gorako aldea ateratzen zionez, jaitsiera kontuz egiteko modua izan zuen. Izan ere, ibilbidea lokaztuta zegoen lasterketa hasi aurretik egindako euriaren ondorioz. Helmugan 40.01eko denbora markatu zuen durangoko korrikalariak; Igor Mancisidor debarra sailkatu zen

bigarren (41.19) eta Iñigo Lariz elgoibartarra hirugarren: 41.44. Emakumeetan Nahia Quincoces mendexarrak irabazi zuen 51.08ko denboragaz.

&gt; Domekan Idiazabalen

Domekan Euskadiko Koparako puntuagarria den Idiazabalgo Axari Trail lasterketan parte hartuko du Ariznabarretak euskal selekzioarekin. Hala ere, bere esanetan Sorginen Lasterketa (irailaren 28an) eta Anboto Kilometro Bertikala (azaroaren 12an) dira denboraldia amaitu arteko bere hitzordurik garrantzitsuenak.

&gt; ARETO FUTBOLA

## Luzapenean Abadiñoko Lagun irabazle Zaldibarren

Mallabia taldeak antolatutako torneoa irabazi dute

Mallabia Tabirakolor areto-futbol taldeak joan zen asteburuan Zaldibarren antolatutako torneoa Abadiñoko Lagun taldeak irabazi zuen. Mallabia eta Abadiñoko Lagun heldu ziren finalera, eta partidu gogor baten ostean, luzapenean, abadiñarrak

nagusitu ziren (4-5). Abadiñoko Lagunek euskal ligan jokatuko du aurten, eta Mallabiak maila bat gorago, hirugarren mailan. Hirugarren mailan arituko den beste talde bat Sasikoa Durango izango da, eta asteburuko torneoan hirugarren ge-

ratu zen Debarrenari 8-0 irabazi ostean. Domeka honetan, 16:00etan, Mallabiak bere taldeen aurkezpen ofiziala egingo du Zaldibarren. Talde nagusiak Kantabriako txapelduna den La Cavadaren aurka jokatuko du.

Elorrioko Buskanta da hirugarren mailan Durangaldeak duen beste ordezkaria. Horiak joan zen barikuan egin zuten aurkezpena. Elorrioko Bk eta Sapuberri bina berdindu zuten, eta Elorrioko Ak 3-5 galdu zuen Presion Break-en aurka.

&gt; PISTA

# Espainiako txapelketako elite mailan zilarragaz debutatu du Zuazubizkarrek

Tafallan jokaturako txapelketan zilarrezko domina bat irabazi du Illart Zuazubizkar abadiñarrak



Illart Zuazubizkar, eta Raul Mena Eustrak-Euskadi taldeko zuzendaria.

## > JOSEBA DERTEANO

Pistan lehiatzeko dohai handiak dituela erakutsita, Illart Zuazubizkarrek (1990, Abadiño) zilarrezko domina irabazi zuen jazarpen proban, joan zen asteburuan Tafallan jokaturako Espainiako txapelketan. Iaz 23

aurtez azpiko mailan parte hartu, eta brontzezko domina lortu zuen proba berdinean (urtea 23 urtez azpikoan). Aurten lehenengoz aritu da, beren beregi, elite mailan. "Dominen borrokan ibiltzea" zuela helburu adierazi du, eta "lasterketa ona"

egin zuela: "Esperotako denboran ibili nintzen". Hala ere, ezin izan omen du nahi beste bider pistan entrenatu: "Entrenamendu gehiagorekin denbora hobea egin ahal izango nuen". Jazarpen proba Sebastian Mora valentziarrak irabazi zuen:

"Oso indartsu atera zen, eta bera izan zen nagusi lasterketan".

Astelehenetik Txinan dabil. Errepidean Txinako itzuli biak lehiatuko ditu maila kontinentaleko Euskadi Fundazioa taldeagaz. Denboraldiko bere azken lasterketak izango dira, eta, akaso, baita talde osoarenak ere: "Euskadi Fundazioaren egoera ikusita, azken momentuko laguntzaren bat jaso ezean, talde horren azken bi lasterketak ere izan daitezke Txinakoak", iragarri du abadiñarrak.

## Eustrak-Euskadi

Espainiako pista txapelketan Eustrak-Euskadi taldeak (Abadiño du egoitza) ere parte hartu zuen. Hiru txirrindulari bakarrak eraman arren, bederatzi dominagaz bueltatu ziren. Ana Usabiagak urrezko hiru domina eta brontzezko bat irabazi zituen, Tania Calvok urrezko eta zilarrezko bina, eta Hodei Mazkiaranek urrezko eta brontzezko bana. Usabiaga eta Calvoren urrezkoetako bat elkarrekin lortu zuten, taldekako abiadura proban.

&gt; MENDIA

## Eguraldia lagun, mendi ibilbidea bihar, Otxandion

Miru-Gain Mendigoizale Elkar-teak V. Uren Jaitsiera mendi ibilbidea antolatu du zapatuan. Aurrez 30 bat lagunek eman dute izena, baina egunean bertan ere eman daiteke, eta eguraldi ona iragarrita dagoenez, ehun lagunetik gora batzea espero dute. 06:00etan hasiko dute izen-ematea (15 euro federatuek, 20 federatu gabekoek) udaletxe pareko plazan. Oinezkoentzako ibilbidea 07:00etan hasiko da, eta korrika egin gura dutenentzako bidea 08:00etan.

Ibilbidea zorrotza da, batez ere, azken erdia. Guztira 47 kilometro ditu, eta 2.400 metroko desnibel positiboa. San Bernabe, Motxotegi, Altun, Saibi, Urkiolamendi, Anboto, Izipitze, Orixol eta Mirugain mendiak igaroko dituzte. Urkiolan anoa postu bat ipiniko dute.

&gt; AUTOMOBILISMOA

## Sailkapen saioa zama astunegia Orientzat

Europako F3 Txapelketaren barruan, Belgikako Spa zirkuituan lehiatutako lasterketa ez zen desiatuena izan Igor Urienentzat. Beste behin, sailkapen saio bietan arazoak izan zituen: bandera gorriak, enbrageagaz arazoak... Ondorioz, atzetik ekin zien bai zapatuko eta bai domekako lasterketei. Zapatuan, lehenengo bihurtuneetan monoplaza bat aurreratu nahian zebilela, aurkari batek jo, eta atzeko aleroia hautsi zitzaion. Hala ere, lasterketan jarraitu, eta seigarren (F308 Kopa) helmugaratzea lortu zuen.

Domekako abenturak itzuli bat iraun zion. Bere aurrean zihozazenen artean gertatutako istripu bat ekidin ezin, eta lasterketatik kanpora geratu zen.

Txapelketako azken-aurreko lasterketa urriaren 5ean eta 6an izango du Italiako Monza zirkuituan. Eta, azkena, Bartzelonan.

&gt; DUATLOIA

## Etzi gaztetxoentzako duatloia Muntsaratzen

Hamahiru urtera arteko gazteei zuzenduta dago



Laubideta triatloi taldeak IV. Duatloi Txikia antolatuko du domekan, Abadiñon, Muntsaratzeke jaien barruan. Hamahiru urtera arteko gaztetxoentzako zuzenduta dago, eta zaletasuna sustatzea du helburu.

Adin tartean banatuta, gaztetxoak lehenengo korrika arituko dira, ondoren bizikletan, eta, amaitzeko, berriro korrika. Izen-ematea duatloi txikiak hasi aurretik izango da, 10:00etatik 11:00etara (euro bat). Lehenengo

lasterketan bost urtera arteko umeek parte hartuko dute eta 11:30ean hasiko da. Orduetik aurrera, urte biko tartean banatuta, beste bost duatloi egongo dira.

## Opariak eta zozketak

Lasterketa amaitzen denean parte hartzaile denentzako opariak egongo dira. Horrez gainera, Laubideta triatloi taldeak, besteak beste, kirol materiala zozketatuko du.

&gt; FUTBOLA

## Bi golekin sei puntu lortu ditu Kulturalak

Liga hasieran emaitzak joko baina hobea izan dira

Tabiran, Lagun Onak taldea 1-0 menderatuta, Durangoko Kulturalak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen joan zen zapatuan, lehenengoa zaleen aurrean. Garces-ek sartutako gola nahikoa izan zitzaion hiru puntuak batzeko. Ligako estreinaldian, Gernikan lortutako garaipena ere Beñat Alberdik penaltz sartutako gol baten bidez lortu zuten. Bi gol, sei puntu. Ondorioz, sailkapenean eroso kokatuta daude bosgarren tokian.

Hala ere, joko aldetik oraindik hobetzeko asko dagoela ikusi

zen Lagun Onak taldearen kontrako partiduan. Gola heldu arteko hogeita minutuak eskasak izan ziren, eta astebete lehenengo Soduperen kontra etxean galdu zuen taldea gogorarazi zuen. Goletik atsedendira arteko minutuak izan ziren Kulturalaren partiduko onenak. Bigarren zatian, Lagun Onak nahi eta ezinean aritu zen, eta Kulturala defentsan sendo, baina ez zuen kontraerasoa baliatzen asmatu.

Zapatuan, 18:00etan, Getxoko Arenas taldea bisitatuko du Durangoko taldeak.

**ATXARTE**  
MENDIKO DENDA

ESKALADA • BOULDER • MENDIA • TRAIL RUNNING

Lafuma • chortis • THE NORTH FACE • LUREL • PETZL

T. 946 550 455  
Santa Ana plaza  
DURANGO  
Atxartemendikodenda@gmail.com

# ➤ Aisialdia

➤ GAZTE GARA GAZTE!

## Ikasturteko lehen ikasgaia Maristetan: erronkei talde lanean zelan aurre egin



Ikasleek egindako askotariko lanetatik 24k parte hartu zuten Maristetan egindako erakustaldian



Gobernuz kanpoko erakunde bik postuak ipini zituzten.



Batxilero, erdi mailako eta goi mailako irabazleak astelehenean Maristetan egin zuten lehiaketan.



### ➤ JOSEBA DERTEANO

